



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**INDARKERIA KOLEKTIBOAREN ONDORIOAK JASAN**

**DITUZTEN HAURREI BIDERATUTAKO HARRERA-**

**PLANA PALESTINA ADIBIDE HARTUTA**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Barrajon Lopez de Lacalle, Miren

ZUZENDARIA: Rodriguez Martin, Endika.

**2021**

Ekialde Ertaineko gatazkak normalizatzeko joera izan ohi dute lehen munduko herritarrek. Gerretan haurrak ahaztuenak izan ohi dira eta indarkeria kolektiboak ondorio negatibo ugari suposatzen ditu euren bizitzetan. Hortaz, gaia ezagutzera emateko eta euskal hezkuntza sistema publikora hurbiltzeko asmotan, lana bi zatitan banatuko da: marko teorikoa, non indarkeria kolektiboak Palestinako haurrengan zernolako ondorioak eragiten dituen azalduko den, erreala ez den haur baten bizitza eta esperientzia abiapuntu harturik; eta aipatutako haurrentzat bideratutako harrera-plana, non Haur Hezkuntzako gela batean erabilgarria eta baliagarria izan daitekeen txostena diseinatuko den.

Hitz gakoak: indarkeria kolektiboa, harrera-plana, esperientzia traumatikoa, ongizate fisiko eta psikologikoa, kalitatezko hezkuntza.

*Indarkeria kolektiboaren ondorioak jasan dituzten haurrei bideratutako harrera-plana Palestina adibide hartuta*

Los ciudadanos del primer mundo tienden a normalizar los conflictos de Oriente Medio. En las guerras los niños y las niñas suelen ser los grandes olvidados y la violencia colectiva supone multitud de consecuencias negativas en sus vidas. Así, con el objetivo de dar a conocer el tema y acercarlo al sistema educativo público vasco, el trabajo se dividirá en dos partes: el marco teórico, en el que se explicarán las consecuencias que la violencia colectiva provoca en los niños palestinos, a partir de la vida y experiencia de una niña inventada; y el plan de acogida dirigido a los citados niños y niñas, en el que se diseñará un documento que pueda ser útil en un aula de Educación Infantil.

*Plan de acogida dirigido a niños y niñas que han sufrido las consecuencias de la violencia colectiva tomando como ejemplo Palestina*

First world citizens tend to normalize conflicts in the Middle East. In wars, children are usually the big forgotten ones, and collective violence has a multitude of negative consequences for their lives. So, in order to make the subject known, and to approach the Basque public education system, the work will be divided into two parts: the theoretical framework, in which the consequences of collective violence on Palestinian children will be explained, based on the life and experience of an invented child; and the reception plan for the above-mentioned children, in which a document will be designed that could be useful in a school.

*Welcome plan for children who have suffered the consequences of collective violence, using the example of Palestine*

## AURKIBIDEA:

1. Sarrera eta justifikazioa .....	4-5
2. Kasuaren aurkezpena .....	5-7
3. Marko-teorikoa .....	7-17
3.1. Palestinako testuinguru historikoa .....	7-9
3.2. Indarkeria Kolektiboa .....	9-10
3.3. Haurren babesa gerra garaian .....	10-11
3.4. Esperientzia traumatiko bat bizitzeak eragin ditzakeen ondorioak .....	11-13
3.4.1. Erresilientzia .....	13-14
3.5. Jatorrizko herrialdea uztea eta herrialde berri batera heltzea .....	14
3.5.1. Akulturazio-etapak .....	14-16
3.5.1.1. Haur iheslariek pasatzen dituzten faseak .....	16
3.6. Harrera-planaren definizioa eta atalak .....	16-17
4. Helburuak .....	17
5. Metodoa .....	18
6. Emaitzak – Indarkeria Kolektiboa jasan duten haurrei bideratutako harrera-plana.....	18-36
7. Ondorioak .....	37-38
8. Bibliografia .....	39-43
9. Eranskinak .....	44-50

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ugari dira euskal eskola publikoak urtero jasotzen dituen haurrak, sarritan zenbaki xume bat besterik ez direla. Gizarteak saku berdinean sartu ohi ditu denak, “umeen” sakuan hain zuzen ere. Baina, gizabanako horiek guztiak kolore, pisu, tamaina eta forma ezberdinetako motxilekin heltzen dira hezkuntza-sistemara. Motxila hitzaren bitartez eta aniztasuna berbaren eskutik ahalmen-ekonomikoa, kultura, erlijioa, ideologia, generoa, jatorria, esperientzia traumatikoak... bezalakoak uler daitezke.

Kasu honetan gerra eremuetatik datozen haurrak hartuko dira kontuan, Palestinako gatazkan fokoa jarritz. Israelek Gazarekin erabiltzen duen indarkeria kolektiboa eta haren ondorioak adin guztietako haurrek jasaten dituzte; baina, oraingo honetan ustekabeko erasoetan, biktima gisa, parte-hartzen duten adingabeetan zentratuko da ikerketa. Horregatik guztiagatik, biolentzia mota hau pairatu duen asmatutako ume baten bizitza abiapuntu hartuta, eta beraz, egoera eta ondorioak azterturik Euskal Eskola Publikoan martxan jartzeko harrera-plan jakin bat diseinatuko da.

Hortaz eta aurrerago azalduko den bezala, GrAL honen bitartez Haur Hezkuntzako ikasgela batean baliagarria izan daitekeen txostena sortzea bilatzen da. Metodoa deituriko atalean irakur daitekeen moduan, diseinua ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten haurrentzat prestatuta dago, horrek egiten baitu ezberdin eta berezi. Indarkeria kolektiboak Palestinako haurrengan eragiten dituen ondorio negatiboak behin ikerturik eta ezaguturik planteatu da harrera-plana. Hortaz, ondorioak zehazturik hauek kudeatzeko erramintak edota gomendioak eskaini dira.

Palestinan okupazio sionistaren indarkeriaren eraginpean fisikoki eta psikikoki, iraunkorki eta biziki egon diren haur palestinarrek beren buruaren eta ingurunearen pertzepzio negatiboagoa dute indarkeriaren ondorioak jasan ez dituztenek baino. Trauma batek sortutako barne-nahasmendu psikologikoa, erasoak niaren desegituratzea eragiten duen bezala. Ume palestinarra berari eta bere herriari eraso eginez jaiotzen da; hau da, segurtasun falta, anormaltasun eta indarkeria giro etengabea. Okupazioaren indarkeriarekiko eta terrorismoarekiko etengabeko esposizioaren ondorioz, adingabeek asaldura psikologiko handiak jasaten dituzte (Marzouka, 2004).

Bai gerra presente dagoen herrialdeetan, bai ez dagoenetan, haurtzarotik dago gerra-sozializazioko prozesu bat, helduaroan borroka armatua justifikatzeko

prestasuna "naturalizatzen" duena. (Moreno, 1991; Fernández, Ayllón eta Moreno, 2003).

## **2. KASUAREN AURKEZPENA**

Sarreran aipatu bezala, harrera-plan espezifiko eta osoa diseinatzeko asmotan, errealia ez den Gazako haur baten bizitza eta haren egoera pertsonala hartuko dira abiapuntutzat.

Mariam izango da lan honen protagonista. Izenaren aukeraketa ez da hautazkoa izan; izan ere, 2021eko maiatzean Israelgo hegazkin batek Gaza Hiriko Tal Al-Hawa auzoa erasotu eta bederatzi egunera Miriam izeneko bi urteko umea aurkitu zuten hilda zabor artean. Hortaz, haren omenez hautaketa. Batez beste, Palestinako 1.000 jaiotzako 18 heriotza daude Zisjordania eta Gazako eskualdeen artean (Borgen Project ,2020).

Kasu honetan, Mariam bost urteko haurra da. Khan Younis Gazako Zerrendako iparraldeko errefuxiatu-esparruan jaio zen, itsasoa bi kilometrora dagoena. 1948. urtean sortutako esparru hau hamahiru eremutan banatuta dago, eta horietako batzuk itsas mailaren azpian daude; beraz, neguan uholdeak bizitzen ditu Mariamek. Babesleku gehienak adreiluzkoak dira, zinkeko teilatuekin. 68.324 biztanle dituen errefuxiatu-esparru honetan ez dago estolderia sistematik; ura, beraz, putzuen edo udalaren bidez hornitzen da.

Mariami bost urteko gelan egotea dagokio. Jakitekoa da lau urte zituenetik ezagutzen duela eskola; hortaz, urte betez egon da hezkuntza munduan. UNRWAK ikasketa planaren arabera, normalean sei urtetik aurrera hasten dira ikasleak eskolan, baina badaude lau urterekin ere hasten direnak. Khan Younis errefuxiatu-esparruko hemeretzi eskoletan gela bakoitzeko ikasle gehiegi dago, ez dago gela nahikorik eta eskolek ez dute ez baliabide ez eta baliabide materialik. Haur honen kasuan, berrogei ikaslerekin batera aritzen zen UNRWAK (Palestinak Ekialde Hurbilean dituen errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) Palestinan dituen eskoletako batean. Metodoaren aldetik, klase magistralak ditu Mariamek ezagunak, idazmahai, aulki eta klase teorikoekin.

Gatazkekin lotutako indarkeriak eragin nabarmena du palestinarren haurren osasun fisikoan eta mentalean. Palestinako etxeetan eta eskoletan disziplina bortitza oso zabalduta dago, haurren % 91,5ek eraso psikologikoak edo indarkeria fisikoa jasan baitituzte. Israelen okupazioaren eraginez, estres-mailak eta disfuntzionaltasunak gora

egin du palestinar familien artean. Gainera, haur palestinarren % 70 lehen hezkuntzara joan ohi da. Hala ere, mutilen ia % 25ek eta nesken % 7k 15 urterekin uzten dute eskola. Zifra horiek askoz handiagoak dira ezgaitasunak dituzten haurretan, hezkuntza jasotzeko zailtasun gehiago baitituzte. (Borgen Project ,2020).

Haurren aitak Mawasi zonaldeko *kibutz* baserri batean egiten du lan; hau da, Israelgo establezimendu komunitarioa, non ondasun guztiak amankomunean izaten diren eta irabaziak establezimenduan berrinbertitzen diren (Merriam-Webster, 2021). Hara heltzeko, ordea, Israelgo Chorro Qatif muga zeharkatu behar du egunero. Heldua indarkeriaren, beldurraren eta atxiloketa arbitrarioaren menpe dago Israelgo militarrekin harremanetan bere burua jarri behar duenean lanera bidean.

Mariamek indarkeria kolektiboa eta haren ondorioak sufritu zituen Euskal Herrira heldu baino bi hilabete lehenago. Bere aita Chorro Qatif mugara lagundu zuen, askotan egiten zuen bezala. Besarkada batekin agurtzen zuen heldua beti; baina, egun hau ezberdina izan zen. Mugara heltzeaz zeudela, iskanbila handia entzun zuten eta Mariamek eskuak belarrietan jarri eta begiak itxi zituen. Helduak Israelen misilak ikusi zituenean, alaba babesten saiatu zen, bere burua arriskuan jarriz. Hamar minutu geroago, haurrak aita hil ziotela nabaritu zuen. Handik gutxira, Mariam ospitalera eramane zuten haren erreferentziazko pertsona lurrean utziz. Eskuineko begia galdu zuen.

Haur palestinar ugari ez dira osasun-sistemara iristen, Israelen itxierako politikak, okupazio militarra eta eraso miliar errepikatuak honen errudun direla. Hortaz, Mariamek ospitalean behar adinako zainketa medikoak jasotzeko zailtasunak izan zituen; aipatu beharra dago, haur asko betiko desgaituta gelditzen direla baliabide eskasengatik. Itxieraren ondorioz, Gazako Zerrendan ezin dira sartu bizitzak salbatzen dituzten funtsezko baliabide medikoak eta farmazeutikoak (Defense for Children International Palestine, 2020). Gainera, Palestinako haurren %22 bost urte bete baino lehen hiltzen dira (Humanium, 2013). Duela bi hilabete, orduan, Mundubat elkarteak Mariam, haren ama eta beste bi anai-arreba, Euskal Herrira ekarri zituen; izan ere, Israelgo misilaren metrailako zauriengatik galdu zuen eskuineko begiko protesia kokatu behar diote.

Hala ere, bizipen horrek fisikoak ez diren ondorioak ere dakartzio Mariami. Lo egiteko zailtasunak ditu eta sarritan aitaren heriotza berpiztu egiten du, momentu horretatik aurrera, beraz, ezin da berriro lokartu. Ez du haren buruarengan ez gainerakoengan konfiantzarik eta horrek bere autoestimuan modu negatibo batean

eragiten du. Gainera, jokaera beldurtiak ditu, besteekin erlazionatzeko duen modua kaltetuz eta mugimenduak murriztuz.

### **3. MARKO-TEORIKOA**

#### **3.1. PALESTINAKO TESTUINGURU HISTORIKOA**

Duela berrogeita hamar urte baino gehiago, Israelek Gazako Zerrenda eta Zisjordania okupatu zituen, eta zati bat Jerusalem atxiki zion. Gaurdaino, eremu horiek eta bertan bizi den jendea kontrolatzen jarraitzen du. Mende erdi baino gehiagoz, Israelek desjabetze, zapalkuntza eta giza eskubideen abusu errealitatea sortu du Gazan eta Zisjordanian. Okupatzen dituen lurren gaineko kontrola zabaltzeko eta sendotzeko, Israelek neurri militar, zibil, legal eta administratiboak aplikatu ditu, eta horien bidez Palestinako eremua urratu du, palestinarrek dozenaka kokagune deskonektatuta banatu ditu, sare sozial, kultural eta ekonomikoa apurtuz (B'Tselem, 2021).

XIX. mendearen amaieran Ekialdeko eta Erdialdeko Europan, sionismoa deituriko mugimendu ideologikoa azalerratu zen, haren asmoa estatu judu bat sortzea zela. Hortaz, leku fisiko baten beharra izanez Europako berpizkunde eta nazionalismo garaian, Eretz Israel, Israeleko lurra aukeratu zuten, Toran agertzen den moduan. Baina, bertan hamahiru mende finkatuta zeramatzaten arabiar-palestinarrak zeuden. 1881 eta 1939 bitartean, 447.000 judu inguru Palestinako lurraldera joan ziren. Mugimendu Sionistak Palestina historikoaren eremu osoaren kontrola bilatu zuen eta juduentzako Estatu bat eraikitzeak espazio horretan bizi ziren herritarren kaleratzea eskatzen zuen, arrazoi demografikoak zirela eta (Izquierdo, 2003).

Lehenengo Mundu Gerraren ostean, britaniarrek zonaldearen kontrola hartu zuten, Palestinako britaniar mandatua izenarekin ezagutzen dena, Nazioen Elkarrekin aginduta (gaur egun NBE izango litzatekeena). Geroago, Bigarren Mundu Gerran holokaustoarekin juduei eragindako kaltearen ondoren, Europa gertatutakoa konpentsatzen edo orekatzen saiatu zen. Hortaz, Nazio Batuen Erakundeak Palestinako lurraldea bitan zatitu zuen: alde bat juduentzat eta bestea arabiar-palestinarentzat. Azkenengo hauek ez zuten euren lurraldearen zatiketa onartu; hortaz, "Israelgo Estatuaren" garaipenarekin eta 1948an maiatzaren 14an independentzia aldarrikatzearekin amaitu zen gerra piztu zen. Handik gutxira, Estatu

Batuak eta Sobietar Batasuna bezalakoek estatu berria onartu zuten (Ilan Pappé, 2007).

Urte bereko maiatzaren 15ean, independentzia aldarrikatu eta biharamunean eta Britainia Handiak agintaldiari amaiera ematen dion egunean bertan, Palestinako herritarren garbiketa etnikoa beste fase batera eraman zen. Gerra bukatzerako 700.000 palestinar euren etxebizitzetatik kaleratuak izan ziren.

1987ko abenduan errefuxiatu-esparruetan Intifadari hasiera eman zitzaion. Langabezia-tasa %35koa zen, familiek logelak zituzten etxebizitza gisa eta komuna kanpoko aldean, mugimendu murrizketak... Intifada, beraz, Israelgo indarren aurkako Palestinako herri mugimendua izan zen, palestinarrek bizi zituzten baldintza sozial itogarriari amaiera emateko. Intifadaren lehen urteetan 400 errefuxiatu hil ziren Israelgo armadaren aurkako borroketan; gainera, dozenaka mila zauritu egon ziren, gehienak munizioa, gomazko pilotak eta Israelgo mugako soldaduen eta poliziaren jipoi sistematikoak jasan zituzten haurrak eta emakumeak zirela. Nekazariak paper garrantzitsua eta erabakigarria bete zuten, manifestatuz, istiluak sortuz eta harriak jaurtiz. Hala ere, Israelgo Defentsa Indarrak protesta bakoitzaren aurrean erantzun egin zuen, herrixkak gas negar-eragileekin eta karga handiekin bonbardatuz. Halaber, atxiloteta jendetsuak egiten ziren epaiketarik egin gabe, atxilotuak torturatzen ziren, herrixkak "segurtasun militarreko" eremu gisa hesitzen ziren eta egunetan zehar sarrera eta irteera eragozten ziren, etxeak eraitsi ziren, hesi handiak eraiki zituzten errefuxiatu-esparruen inguruan... 1991n murrizketa ekonomikoak ezarri zizkieten herrixkei, hala nola argindarra eta ura moztea, edo oliba biltzea debekatzea (Ilan Pappé, 2007).

2016. urteaz geroztik, Israelgo ejerzitua urtean 3800 milioirekin finantzatzen du AEBk. Israelek palestinarrek terroristak direla argudiatuz justifikatzen ditu okupazioa eta erasoak, eta PAE (Palestinaren Askapenerako Erakundea), PAHF (Palestinaren Askapenerako Herri Frontera) eta Hamas bezalakoekin lotzen ditu.

Gazari erreferentzia eginez, ia bi miloi pertsona bizi diren Palestinako lurraldea da horietatik %90 euren lurretan errefuxiatu eta erdia haurrak direla. Hamarkada bat baino gehiagoz, Israelek Gaza mundu osotik isolatu du, pertsonen eta ondasunen mugimendua zorrotz blokeatuz. Herrialde zapaltzailearen esanetan, blokeoa ezinbestekoa da segurtasun arrazoiengatik. Hona hemen, besteak beste, Israelen blokeoaren eragina: Gazako biztanleen %80 laguntza humanitarioaren mende dago, kutsaduraren eta itsasoko ur-fluxuaren ondorioz, uraren % 96 ez da egokia gizakiek




## Graduko Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

kontsumitzeko (JustGiving, 2021). Hurrengo hamarkadan ur-hornidurako putzurik handiena, ur gaziz nahasten dabilena, ez da erabilgarria izango.

2021ko maiatzaren 10etik 20ra bitartean, Israelek, Gazako Zerrendan, 232 pertsona erail ditu, horietako 65 haurrak izanik. 1910 zaurituz gain, 90.000 pertsona desplazatu dira, 1800 etxebizitza suntsitu dira, 74 gobernu-instalazio bonbardatu dira eta 33 hedabide eta 6 goi-mailako eraikin suntsitu dira (NBE, 2021). 2008, 2012, 2014 eta 2021ko erasoetan bizitanleria zibila izan da erasotuena, suntsipen eta heriotzarekin Gazan, 2007tik legez kanpoko blokeo baten pean bizi dena (Amnistia International, 2021).

Gazako Zerrendan, haurren heriotza gehienak Israelgo indarren erasoen eta eskala handiko eraso militarren ondorio dira, biktima zibil ugari eragiten baitituzte. Azken urteotan, Israelgo indarrek gero eta haur palestinar gehiago tirokatu eta hil dituzte Gazako mugako hesitik gertu, manifestazio jendetsuetan. Lesioei dagokienean, israeldarren aire erasoek edo mugako hesiaren kontrako tiroek eragindako metraila hegalarien emaitza izan ohi dira. 2005etik, sei erasoaldi militar handik gutxienez 1.000 haur palestinar hil dituzte Gazan (Defense for Children International Palestine, 2021).



*B'Tselem, 2000-2021*

### 3.2. INDARKERIA KOLEKTIBOA

Osasun Mundu Erakundeak honela definitzen du indarkeria kolektiboa: “Talde bateko kide gisa identifikatzen den jendeak indarkeria instrumentalki erabiltzea, dela iragankorra dela iraupen luzekoa, beste talde baten aurka, helburu politiko, ekonomiko

edo sozial batzuk lortzeko.” Gurera ekarriz, indarkeria kolektibo gisa Israelgo estatuak Palestinako herriarengan erabiltzen duena uler daiteke.

Bigaren definizio gisa, hona hemen Darío Paézek eta Silvia Ubillosek (2004) zehaztutakoa: “Indarkeria kolektiboa talde antolatuek, talde edo komunitate baten aurka, indarra nahita erabiltzea da, heriotza, kalte fisiko edo psikologikoa, gabetzea edo pertsonaren garapena aldatzea. Gerra eta matxinada armatuaz gain, terrorismoa edo armarik gabekoen aurkako ekintza armatua ere uler daiteke.”

Indarkeria kolektiboa erabiltzen duten subjektuek arau eta balore ideologiko zehatzak partekatzen dituzte. Gerra biktima gehienak zibilak dira, gatazka irabazteko etsaiak desmoralizatzeko helburua orokortu egiten baita. Gainera, indarkeria kolektiboan inplikaturik diren erru, damu eta barkamen seinaleak lortzeko urritasuna eta zailtasuna azpimarratzekoa da. (Darío Paéz eta Silvia Ubillos, 2004, 43-44. or.).

Hona hemen indarkeria kolektiboa errazten duten hiru prozesu (Dario Paéz eta Silvia Ubillos, 2004, 44. or.): lehenik eta behin, indarkeriaren justifikazio morala, betebeharrak moral gisa ulertzen da, zalantzan jarri den gizarte-ordena berrezartzeko; bigarrenik, zenbaki eta rol huts gisa ikusten diren eta beren ezaugarri pertsonalak kontuan hartu gabe erasotzen diren biktimen gizatasuna galtzen da; eta hirugarrenik, erasotzaileek beste batzuen aurrean duten erantzukizunik, zehapenik edo zigorgabetasunik ezak indarkeria kolektiboa errazten du.

Gehiago zehazteko asmotan, ondorengo lerroetan indarkeria kolektiboaz mintzo denean bonbardaketei, tiroketei eta ustekabeko erasoak egingo zaie erreferentzia. Indarkeria mota horren eraginpean egoteak norberaren edo senide baten bizitza galtzetik, sortzen diren inpaktu psikosozialetara zabaltzen da; gehiago zehaztuz, indarkeria kolektiboak kalte fisikoak, psikologikoak edota heriotza eragin dezake. Aipatuta beharra dago, ustekabeko erasoak bizitza eragoan haurren bat-bateko erantzuna izua eta negarra direla (Pedro Alfonso Neira, 2002).

### **3.3. HAURREN BABESA GERRA GARAIAN**

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak, gerra eskubidea eskuarki, konfrontaziotik at daudenak edo hura uztea erabaki dutenak babestea helburu gisa duen arau eta protokolo multzoa biltzen du, gatazka armatuetan giza sufrimendua mugatu eta saihesteko asmotan. Hortaz, derrigorrezkoa da bai gobernuak, bai

armadek, bai eta edozein oposizio taldek arau eta protokolo hauek errespetatzea eta betetzea.

Horiek horrela, haurrak pertsona zibilak diren lez, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren barnean badira eurentzat eskainitako zenbait lerro:

Haur guztiak babestuta daude zuzenbideko arau-hausteen aurka, hala nola torturaren eta beste tratu txar mota batzuen aurka, sexu-indarkeria, atxiloketa arbitrarioa, bahituak hartzea eta lekualdatzea. Ez da inolako erasorik egin behar, liskarretan zuzenean parte hartzen dutenean eta parte-hartze horrek iraun bitartean izan ezik. Errespetu eta babes bereziarekin tratatu egin behar dira. Tratu horrek barne hartzen du hezkuntzarako sarbidea, elikadura eta osasun-laguntza. (CIRC, 2019, 3or.).

Hala eta guztiz ere, Zisjordania okupatuan, Ekialdeko Jerusalem barne, eta Gazako Zerrendan Israelen okupazio militarren pean bizi diren haur palestinarrei bizitzeko eskubidea, hezkuntzarako eskubidea eta etxebizitza egoki bat izateko eskubidea ukatzen zaizkie. Horiez gain, arreta medikorako sarbidea ukatzen zaie (Defense for Children International Palestine, 2021).

### **3.4. ESPERIENTZIA TRAUMATIKO BAT BIZITZEAK ERAGIN DITZAKEEN ONDORIOAK**

*Nacio en Gaza* (2014) dokumentalean ageriko indarkeria kolektiboa jasan duten haurren testigantzak aztertuz gero, ugari dira esperientzia traumatikoen ondorioz gauero amesgaiztoak izaten dituztenak, lo egin ezin dutenak, buruko-mina dutenak, bizitzeko gogorik ez dutenak, negar egiteko joera dutenak, komunikatzeko arazoak dituztenak, edozein zaratagatik izutzen direnak, jokaera beldurtiak dituztenak edota larridura handiko erreakzioak dituztenak gertaera traumatikoa gogoratzen duten egoeretan. Hori gutxi balitz, UNICEF erakundearen arabera, haur askok jateari uzteaz gain, antsietate handia erakusten dute eta sufrimendu mentalaren zantzu izugarriak dituzte. Kasurik larrienenetan, gainera, suizidiorako joerak izaten dituzte (Carter eta Mok, 1992).

Ez hori bakarrik, ustekabeko erasoak sufritu dituzten haur askok eta askok denboran zehar mantentzen diren desoreka psikologikoak adierazten dituzte, etorkizun

batean sintoma psikopatologikoak eta arazo emozionalak zein jokabide-arazoak garatzeko arrisku handiagoa izanez (Frias eta Gaxiola, 2008). Oldarkortasuna kontrolatzeko zailtasuna (Palacios eta Hainze, 2002) areagotzeaz gain, jarrera desafiataileak garatzeko joera nagusitu egiten da (Mash eta Wolfe, 2010). Horrek, era berean, etorkizunean indarkeriazko jokabideak agertzeko arriskua ugaritzen du (Alda eta Beliz, 2007; Buckner, Beardslee eta Bassuk, 2004).

Are gehiago, Pedro Alfonso Neira adituaren liburuan (2002) irakur daitekeen moduan, mota honetako indarkeria pairatzeak etorkizunean beldurra, konfiantzarik eza, itxaropenik eza, gorrotoa eta mendekua bezalako sentimenduak piztea suposatzen du. Gainera, esperientzia traumatiko hauek hurren garapen bio-psikosoziala baldintzatzeaz gain, beren harreman-modua eta etorkizunerako proiektzioa ere baldintzatzen dute. Aipatzekoa da gatazka handienetako eremuetan hizkuntza eta jolasak bezalakoak gerrako sinboloekin lotuta daudela.

Traumatismoen munduan fokoa jarritz, Carmen Lucia Diaz emakumearen hitzetan, trauma instalatzea ohikoagoa da haurtzaroen, etapako berezitasunengatik (2002, 69.or.): "Oro har, haur oro, bere babesgabetasunagatik eta munduarekin topo egiten duten fantasia beldurgarriengatik, traumatismoen eraginpean dago, eta, beraz, bere psikismoan gerraren ondorioengatik traumak kikiltzen edo uzkuratzen dira. Honek, bere baitan, izua ezartzen du, zeinaren ezaugarria subjektua hitzik gabe uztea baita."

Psikoanalisiaren arabera, bizitako esperientzia traumatikoak adimenak sarritan ahaztu edota gogoratzeari utzi egiten ditu; baina, iraganaren zati hori errepikatu egiten da pertsonak gauzatzen dituen gaur egungo ekintzetan.

Amesgaiztoetan zentratuz: "Ume hauen amesgaiztoak ez dira normaltasunaren eremuan sartzen, traumak eragiten ditu eta, gertatzen direnean, hil egingo direla pentsatzen dute, edo etxeen suntsipena, gurasoen edo bizilagunen heriotza berpizten dituzte" (Camilla Lodi, 2015). Gainera, amesgaitzak sufritzen dituztenean, berriro lokartzeko zailtasunak izateaz gain, egunean zehar gauzatutako ekintzetan arreta jartzeko arazoak ere izaten dituzte.

Aurrekoaren haritik, haur depresioa aipatu beharra dago, haren sintomak honela aditzera ematen direla: Tristura, apatia, mintzamena gutxitzea, jarduera fisikoa murriztea, uzkuratzea eta larritasuna, helburu- eta motibazio-maila jaitea, jokabide-inhibizioa, suminkortasuna, lotsa-sentimenduak, alferkeria eta errua. Alderdi akademikoan, depresioa sufritzen duten haurrek berdinekin erlazionatzeko zailtasunak

izaten dituzte eta eskolako jardueretan jardun eskasa erakusten dute (Soutullo eta Mardomingo, 2010).

Beldurrari dagokionean, indarkeriazko ekintzek jolasa edota loa bezalakoak eten egiten dituzte; sentimendu honek, beldurrak hain zuzen ere, harreman-, adierazpen- eta mugimendu-forma partikularrak moldatzen ditu, betiere adingabearen aukerak hertsatuz edo bortxatuz (Pedro Alfonso Neira, 2002).

Gurasoen paperari erreferentzia eginez, sarritan helduek ez diete hurrei bizitako ustekabeko erasoengatik arrazoi edota azalpen espliziturik ematen; hortaz, adingabeek euren bertsio propioak imajinatzen dituzte. Baina, umeen bertsioak arriskutsuak izaten dira helduen segurtasunerako; horregatik, isiltasuna inposatzen diete, horren inguruan ez hitz egitera, ezer ez esatera edo bizitakoa ahaztera behartuz. Gainera, denboraren poderioz, aitaren rola zalantzan jartzen zaie; izan ere, erreferentziazko figura momentu oro iraindua ikusten dute.

Hiru eta sei urte bitarteko hurrek gerra-testuinguru bati aurre egiteko komunikazio-mugak izateaz gain, baliabide kognitibo, emozional eta sozial gutxiago dituztenez, eragin handia izango dute beren erreferentziazko helduek egoeraren aurrean nola erreakzionatzen duten (Halevi, Djalovski, Vengrober eta Feldman, 2016; Murphy, Yoshikawa eta Wuermli, 2018; Slone eta Mann, 2016).

Aipatutako eragin psikologikoen gain, badira ere ondorio fisikoak: "Arma leherkorrek eremu populatueta dituzten efektuak suntsizaileak izan daitezke, batez ere haurrentzat, haien ahuleziak eta anatomiak zailtasun handiagoak eragiten baitituzte birgaitzerako edo errehabilitaziorako, hezurretako lesioen edo anputazioen kasuan" (CIRC, 2017, 2.or.).

Laburbilduz eta orokortuz, indarkeria kolektiboak haurren mundua guztiz desegiten du.

### **3.4.1. ERRESILIENTZIA**

Erresilientziaz mintzo denean, Garcia-Escamilla-k (2003) honela definitzen du: "gizakiak trauma bati aurre egiteko eta, markatuta geratu gabe, zoriontsu izateko duen gaitasuna".

Asko izan daitezke aurre egiteko gaitasuna duten pertsonak; baina horrek ez du esan nahi egoera kudeatzen dakitenik. Erresistentzia da kolpe bat jaso eta aurre egiten

diozunean; erresilientzia, berriz, kolpearean aurretik zenuen garapena berreskuratzea da, eta harekin zer egin jakitea (Cyrulnik, 2002).

Gizonaren arabera, pertsona erresilienteek koefiziente intelektual handiagoa eta arazoak konpontzeko trebetasun handia dute, baita errealitateari askotariko baliabideekin aurre egiteko ere. Euren borondatea eta planifikatzeko gaitasuna handia da, baita beren umorea ere. Autoestimu eta independentzia handiagoa dute, eta etsipenerako joera txikiagoa.

### **3.5. JATORRIZKO HERRIALDEA UZTEA ETA HERRIALDE BERRI BATERA HELTzea**

Kontuan hartu beharra dago euren herrialdetik alde egiten duten momentuan euren errekurtsio psikologiko guztiak agortuak dituztelako izaten dela, beste errekurtsio batzuen artean. Askotan euren erantzuteko gaitasuna kaltetua izaten da. Gainera, jasandako inpaktu emozionala orokorrean ez da asimilatua izaten. Ezin da ahaztu herrialdea uzteak kalte kolateralak eragiten dituela, galerak, lagunak abandonatzea, hildakoak... besteak beste. (Martha Nubia, 2002, 52. or.)

Behin hemen egonda, gizarteratzeko prozesua konplexua eta korapilatsua izaten da. Aldi horretan, hainbat egoera bizitzen dira, haurren egonkortasuna berreraikitzen lagun dezaketenak, edo, aitzitik, haien arrisku eta ahultasun egoera areagotzen eta larriagotzen lagun dezaketenak. (Pedro Alonso Neira, 2002)

Aurrerago azalduko den bezala, haur gehienek ondorengo prozesua bizitzen dute: Euskal Herrira heltzerakoan bat-bateko aldaketei (klima, giroa, dieta, ohiturak, egunerokotasuneko jarduerak...) aurre egin behar diete, baldintza kaskarretan. Familiek, hortaz, harridura-sentsazioa sentitzen dute, segurtasunik eza eta beldurra areagotzen dituenak. Hasierako momentuan txikiek poztasunez bizi ohi dute aldaketa; izan ere, euren haur-rola praktikan jartzeko eskaintzak eta aukerak aurkitzen dituzte, euren jatorrizko herrialdean ukatu zitzaizkienak. Hala ere, erakargarria zena frustrazio eta anibalentzia bihurtzen da, eguneroko gabeziak, epaiketak, bazterketak eta zailtasunak areagotzen diren heinean. (Martha Nubia, 2002, 54. or.).

#### **3.5.1. AKULTURAZIO ETAPAK**

Etorkinek, gehienetan, lau akulturazio- eta moldaketa-etapa pasatu ohi dituzte herrialde berri batera iristerakoan (Kim, 1988; Brown, 1992). Hala ere, norbanakoek

erritmo desberdinetan pasatzen dituzte egokitze- eta akulturazio-etapak, eta etapa bakoitzeko elementuak konbina ditzakete, edo etapa batean edo gehiagotan ez atzera ez aurrera geratu urte askoan. Etapak, zenbaitetan, bata besteari gainjartzen zaizkio (Coelho, 2016, 26-30. or.):

1. Iristea eta lehen inpresioak: hasierako egunetan euforia, abentura edota baikortasuna bezalako sentimenduak izan ohi dituzte, jatorrizko herrialdean zuten egoera okerretik alde egin baitute; baina,aldi berean hestura eta larritasun handia sentitzen dute.
2. Kultura-talka: kultura-talkak askotariko sentimenduak pizten ditu, deserosotasuna, nahasmena eta alienazioa hain zuzen ere; izan ere, familia utzi edota sostengua eta identitatea ematen zizkien kultura galdu dute. Hortaz, etorri berriek gorabehera handiak bizitzen dituzte alderdi emozionalean: jakin-mina, abentura, baikortasuna, tristura, galera, desesperazioa, larritasuna, frustrazioa...
3. Oneratzea eta baikortasuna: baikortasun eta autonomia sentimendu berriak nagusi dira etapa honetan. Maiz jasandako presioek landu egin diezaiekete aurrera egiteko trebetasunak eta arazoak gainditzeko estrategiak garatzen. Nahiz eta presio-sentimenduak presente dauden, zailtasunak gainditzeko gai sentitzeak eta hizkuntza ikasten hasteak indarra ematen die. Horregatik guztiagatik, etorkizun argiagoa ikusten dute urtebete edo bi urte iraun dezakeen etapa honetan.
4. Akulturazioa: kasu honetan kultura berria modu integratuago batean onartzen dute, zenbaitetan euren bi errealitateak uztartuz; hots, kultura berriaren zenbait balio eta jatorrizkoaren alderdi batzuk mantenduz. Beraz, identitatea birsortuz konpontzen dituzte barne-gatazkak, zenbaitetan jatorrizko kultura baztertuz; lehen hizkuntza alderatuz, adibidez. Esan beharra dago, erabateko asimilazioak norberaren bizitzako zatiak erabat banatzea eta bereiztea ekar dezakeela, balio negatiboa hartuz (Freire, 1989).

Esatekoa da, zenbait etorkinek arazoak ahazteko intentzioarekin euren hizkuntza eta kultura alboratzen dituztela, gehiengoarenekin ordezkaturik. Prozesu horri asimilazioa deritza. Asimilazioa hezkuntzara ekarrita, eskola bakarra da, eta, bertan, ikasleak ez dira eskolatzen kultura-berezitasunen arabera, baizik eta lurraldean duten kokapenaren arabera. Halaber, guztiontzako berdina den kultur transmisioko prozesu

komun bat ezartzen da, curriculum komun bat, horrela herritarren komunitate bakar bat, herri bakar bat eraiki ahal izateko (Besalú).

### **3.5.1.1. HAUR IHESLARIEK PASATZEN DITUZTEN FASEAK**

Nahiz eta aurreko etapak etorkin guztiek pasatzeko aukera dituzten, hona hemen buru-osasuneko adituek zehaztutako iheslariak lurralde berri bateko bizimodura egokitzean igarotzen dituzten ohiko faseak (Etorkin eta Iheslarien Buru Osasuneko Arazoetarako Kanadako Lantaldea, 1988; Freire, 1989):

1. Hasieran, euforia eta lasaitasuna sentitzen dute; izan ere, jatorrizko herrialdeko jazarpena, bideko baldintza kazkarrak edo heriotza alde batera utzi dute.
2. Geroago, errudun sentitzen dira onik atera direlako, haien lagunak eta familiak alde egitea lortu ez baitute.
3. Ondoren, alde egite horrek asko iraungo duela onartzen dute eta horregatik depresio handiko aldia izan daiteke.

### **3.6. HARRERA-PLANAREN DEFINIZIOA ETA ATALAK**

Eusko Jaurlaritzaren (2004) hitzetan Harrera-plana ikasle berriak ikastetxera egokitzen laguntzeko helburua duen jarduera protokoloa da, Euskal Autonomia Erkidegoan ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan, Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan eta Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuan kokatzen dela.

Berez, Koordinazio Pedagogiko Batzordeari edo azpibatzerde bati dagokio plana egitea. Ezinbestekoa da koordinazio-organismoek (irakasle-taldeak) harrera-planaren aldaketak erabakitzea eta onartzea. Horiez gain, Klaustroak eta OOGk ere ontzat eman beharra dute.

Kontuan hartzekoa da, eskaintzen den laguntza ezin izan daitekeela estatikoa eta adaptazio-prozesuan zehar beti berdina, ezta iristeko unean bakarrik eskaini beharrekoa, ikasleak moldatze-prozesuan pasatuko dituen fase guztietara egokitutakoa. Harrera-gizartearen lana da, eta, ondorioz, gizartearen agenteak den eskolarena, une bakoitzean behar duen laguntza eskaintzea (Eusko Jaurlaritza, 2004).

Hortaz, plana honek zenbait fase izan ohi ditu (Eusko Jaurlaritza, 2019-2020):



1. Sarrera: Zer den eta zertarako den Harrera Plana, non kokatzen den eta nori dagokion plana diseinatzea.
2. Hasierako gogoeta: Harreraren, integrazioaren, eskola-komunitateko partaideen zereginen... inguruko hausnarketa.
3. Ikasle berria etorri aurretik: Haurraren inguruko informazioa biltzea (matrikulazio-prozedurak, ikaslearen datuak, familia-egoera...), irakasleekin eta irakasle ez diren langileekin informazioa partekatzea eta harrera prestatzea ikastetxean eta ikasgelan.
4. Lehen bilera familiarekin: Familiei behar adinako informazioa eskaintzea eta haurraren ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan baliagarria izan daitekeen informazioa eskatzea.
5. Lehen erabakien aurreikuspena: Zein ikasmaitan eta zein taldetan eskolatuko den eta laguntzak antolatzeko irizpideak.
6. Ikastetxera iristea: Lehen egunaren prestaketa eta lehen egun(ta)ko jarduerak antolatzea.
7. Esku-hartzeko norbanako jarduera plana (njp): Hasierako balorazio-ebaluazioa egitea, laguntza-saioak planifikatzea eta ikaskuntza prozesuaren jarraipena egitea.
8. Jardueren jarraipena eta harrera-planaren ebaluazioa.

#### **4. HELBURUAK**

Arestian aipatu denez, lan honen helburu nagusia indarkeria kolektiboaren ondorioak jasaten dituzten Palestinako haurrei bideratutako harrera plana diseinatzea da. Hori dela eta, GrAL honen bitartez Haur Hezkuntzako ikasgela batean baliagarria izan daitekeen txostena sortzea bilatzen da.

Oinarrizko xedeaz aparte, txosten honetan beste bi helburu espezifiko planteatzen dira: alde batetik, indarkeria kolektiboaren eraginez Palestinako haurrek pairatzen dituzten ondorioak ezagutzera ematea; eta bestetik, Haur Hezkuntzara, zehazki, bideratutako harrera-plana eskaintzea.

## 5. METODOA

Harrera-planaren diseinua aurrera eramaterako orduan Eusko Jaurlaritzak *Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak* eta *Harrera-plana ikasle berrien eta haien familien harrera bideratzeko jardunbideak* izenarekin eskaintzen dituen txostenak kontuan hartu dira. Aipatu beharra dago Lehen Hezkuntzara bideratutakoa direla batez ere; hortaz, funtsezko ideiak besterik ez dira hartu kontuan.

Beste alde batetik, diseinua ezaugarri zehatz batzuk betetzen dituzten haurrentzat prestatuta dago, horrek egiten baitu ezberdin eta berezi. Indarkeria kolektiboak Palestinako haurren eragiten dituen ondorio negatiboak behin ikerturik eta ezaguturik planteatu da harrera-plana. Hortaz, ondorioak zehazturik hauek kudeatzeko erramintak edota gomendioak eskaini dira.

## 6. EMAITZAK – INDARKERIA KOLEKTIBOAREN ONDORIOAK JASAN DITUZTEN PALESTINAKO HAURRERI BIDERATUTAKO HARRERA-PLANA

### SARRERA

Urtero Euskal Eskola Publikoak jatorri ezberdinetako haurrei egiten die harrera. Baina, ondorengo lerroetan ezaugarri jakin batzuk biltzen dituzten umeei bideratutako protokoloa ageri da, indarkeria kolektiboaren ondorioak jasan dituzten Palestinako haurrei hain zuzen ere, Mariam umearen esperientzia adibide hartuta.

Honetan, aipatutako karakteristika zehatz horiek dituen haur bat ikastetxera heltzerakoan, zentroan lan egiten duten irakasle zein langileen egitekoak edota zereginak ageri dira: ikastetxeko zuzendaritza-taldearen egitekoa eta tutorearen egitekoa. Hortaz, eskola-komunitateko partaide guztiek argi izan behar dute zer egin haurra matrikulatzen den egunean, haurraren lehenengo egunean, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan zehar...

Horregatik guztiatik eta aurrerago zehaztasun gehiagorekin azalduko den bezala, beharrezkoa da haur horren eta haren familiaren inguruko informazioa ezagutzea. Ikastetxeak, hortaz, ahalik eta informazio gehien biltzeko ardura du esku-hartze egokia, antolatua, orekatua eta egokitua diseinatu ahal izateko. Gainera, ezinbestekoa da erakunde desberdinen arteko informazio-trukea eta koordinazioa.

Horrez gain, ezinbestekoa da helduaren figura orojakile eta europar salbatzailea alde batera uztea; izan ere, haur hauek eta haren familiek Euskal Eskola Publikoa aberasten dute.

#### IKASLE BERRIA ETORRI AURRETIK

Aipatu bezala ezinbestekoa da ikastetxeko irakasleak eta langileak haur berriaren berri izatea; izan ere, eskolak espazio abegikor eta atsegina eman beharra du eta etorri berriak ez du eskolako ohiko martxa asaldatu behar.

Zuzendaritza-taldeari dagokionean, haurren inguruko oinarrizko datuak bilduko ditu, horiekin harreraz arduratuko diren eta bertan parte-hartuko duten pertsona zein premia guztiak antolatuz eta koordinatuz. Haurren oinarrizko datuez mintzo denean, ikaslearen datu pertsonalei (familia-egoera, adibidez) eta akademikoei egiten zaie erreferentzia: Mariam ama eta neba-arrebekin dago Euskal Herrian, aita erail zuten, Palestinan urte betez egon da eskolarizatuta beste berrogei irakaslerekin batera.

Izan daiteke beste estamentu batzuek ikaslearen inguruko informazioa izatea: Mundubat elkarteak Mariamen inguruko datu ugari izateaz gain, ebakuntza egingo dioten ospitalean informazio baliagarria lor daiteke. Hala ere, pribatutasun legeak direla eta, zaila izan daiteke nahi dena eskuratzea. Behin informazio guztia bilduta eta antolatua izanda, eskolako langileekin partekatuko da aurreiritziak eta gaizki-ulertuak ekiditeko asmotan.

#### FAMILIAREKIN LEHENENGO KONTAKTUA

Nahiz eta aurrerago ikaslearen tutorea eta zuzendaritza-taldea familiarekin bilera formalago batean elkartuko diren, garrantzitsua da elkarrizketa informala egitea. Solasaldiaren helburua aurretik ezagututako informazioa osatzea da; ikasleak hezkuntzarekin zer kontaktu izan duen edota zer-nolako osasuna, adibidez. Jakitekoa da prest egon behar dela atzera egiteko; izan ere, galderek zenbaitetan deserosotasuna edo atsekabea eragin dezakete, gainera informazio hori aurrerago lor daiteke. Garrantzitsua da familia informazio berriz ez itotzea (Choelho, 2014, 57.or.). Are gehiago, Mariamen ama bakarrik dagoenean haren seme-alabekin ezagutzen ez duen herrialde batean.

Lehenengo momentu batean zuzendaritza-taldeak emango dio ongietorria familiari eta ikastetxeko instalazioak erakusteaz gain, eskolako funtzionamendua eta zerbitzuak azalduko dizkio aipatutako elkarrizketa informala ematen den bitartean: ordutegia, jantokia, irakasle-taldea, irteerak, ikasleak behar duen materiala, bekak eta laguntzak eskuratzeko informazioa...

Aintzat hartu behar da familiak komunikatzeko erabiltzen duen hizkuntza zein den; hau da, zenbaitetan eskolak eta familiak ez dute hizkuntza bera ulertzen. Horregatik eta gaizki-ulertuak ekiditeko, Lurralde Ordezkaritzako itzulpen-zerbitzua eska daiteke. Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duen zerbitzu honetara deitu eta itzultzaile bat etorriko da eskolara, komunikazioa errazten lagunduko duena. Edo nahi eta aukera izatekotan, zentroan jatorri berdineko familia edo ikasle bat izanez gero, haren laguntzaz baliatu ahal izango da.

Horrez gain, komeni da familiaren jatorrizko hizkuntzan ondorengo informazioa biltzen duen liburuxka ematea: eskolari buruzko oinarrizko informazioa, ikastetxeko telefonoa, helbidea eta harremanetan jartzeko pertsonaren izena.

FAMILIA ETA ZUZENDARITZA-TALDEAREN ARTEKO LEHENEGO BILERA FORMALA
---

Behin funtsezko informazioa eskainita eta azalduta, familia eta zuzendaritza-taldearen arteko lehenengo bilera formala zehaztuko da. Nahikoa denbora hartu beharra dago kontzeptu guztiak ondo uler daitezen eta laguntza eta sustengua emanaz.

Zuzendaritza-taldearen funtzioa emandako liburuxkan ageriko informazioa zehatzago azaltzea izango da, hezkuntza-sistemaren inguruko argibideak besteak beste.

LEHENENGO ERABAKIAK
---------------------

Lehenengo erabakiak hartu beharreko momentua familiaren eta haurren ezaugarri zehatzen arabera izango da; hau da, agian zehaztaper hauek familiarekin egindako lehenengo bilera formalaren aurretik ados daitezke.

Hala eta guztiz ere, beharrezko informazioa dagoela uste denean ikaslearen maila eta taldea zehaztuko dira; horrela, tutorea ikasle berriaren harreran lan egiten

**Graduko Amaierako Lana.** Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

jarriko da. Txikientzat, lehen eskolatzea bada, leku- eta irakasle-aldaketa oso deserosoa izan daiteke, eta, horregatik, erreferentzia afektibo argiak adieraztea guztiz garrantzitsua izango da. Printzipioz komeni da umea bere adineko haurrekin jartzea; gainera, horrek espektatiba altuak izaten laguntzeaz gain, Haur Hezkuntzako etapan ardura handikoa den sozializazioa erraztuko du. Hortaz, Mariami, bost urte izanda, bost urteko gelan egotea dagokio.

Horrez gain, laguntzak antolatzen hasiko dira. Alde batetik, ikusteko urritasuna duten ikasleak hezkuntzan barne hartzeko baliabideteiarekin (IBT-CRI) kontaktuan jarriko da eskola. Organismoak honela definitzen bere burua: “Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailak bere baitan duen organismo publikoa da IBTt-CRI, 1980tik hona heziketa zentroekin elkarlanean dabilena ikusmen-desgaitasuna eta itsutasuna duten ikasleen inklusioa lortzeko”.

#### FAMILIA ETA TUTOREAREN ARTEKO LEHENENGO BILERA FORMALA

Tutorearen funtzio edo helburu nagusia haurraren eta familiaren inguruko informazioa eskuratzea izango da; hortaz, sentikorrak izan daitezkeen datuen inguruan hitz egiten saiatuko da, bizitako esperientzia traumatikoaren inguruan hain zuzen ere. Irakasleak jakin behar du nolakoa den haur berriaren esperientzia, eta nolako eragina izan dezakeen esperientzia horrek ikaslearengan eta haren familian. Modu honetan, umearen beharrak identifikatuko dira eta laguntza espezifikoa emateko aukera egongo da.

Orain bai haurraren osasun fisiko zein psikologikoan sakonduko du tutoreak. Alde batetik, Mariamek zer nolako gaixotasunak dituen, alergiak, txertoak, lo egiteko arazoak dituen, esfinterraren kontrola... bezalakoak kontuan hartuko dira. Gainera, osasun-jarraipenak proposa daitezke.

Eta bestetik, azterketa psikologiko bat egingo da psikopedagogo baten eskutik. Normalean eskoletan ez dago prestakuntza zehatz honetako profesionalik; horregatik, komeni da Berritzegunearekin kontaktuan jartzea. Hala ere, irakasleak umearekin denbora ugari pasako duenez, amaren laguntzaz psikopedagogoarentzat baliagarriak izan daitezkeen umearen egoera emozionalaren inguruko zenbait datu bil ditzake kontrol-zerrendaren (*Ikus 1. Eranskina*) bitartez; modu honetan, traumak utzitako ondorioak zehaztuko dira. Denboraren poderioz, gainera, ikaslea ikasgelan dagoenean, behaketa teknika erabiliz aipatutako kontrol-zerrenda osa daiteke. Mariamen kasuan, psikopedagogoari ondorengo aurreratuko zaio: amesgaiztoak

**Graduko Amaierako Lana.** Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

dituela, aitaren heriotza berpizten duela, erlazionatzeko zailtasunak dituela, jokaera beldurtiak dituela, konfiantzarik eza duela eta mugimendu bortitzak saihesten dituela. Informazioa aprobetxatuz, tutoreak aipatutakoari aurre egiten hasten lagun diezaioke.

Bigarren batzar honetan, aurretik izandako bileran sortutako zalantzak argitu daitezke eta modu batean informazioa osatu. Gainera, ikasle taldearen eta gelako erritmoaren, metodoaren eta funtzionamenduaren inguruko argibideak emango dira.

Horrez gain, azpimarratu beharra zaie gurasoak giltzarria direla eskola arrakastan eta ezinbestekoa dela modu aktibo batean parte hartzea. Kontuan hartzekoa da zenbaitetan lan bat baino gehiago izateagatik ez dutela astirik izaten, edota ez direla gai sentitzen hezkuntza-sistema ezagutzen ez dutelako edo hizkuntza jariorik ez dutelako.

Beste alde batetik, garrantzitsua da argi uztea lehenengo hizkuntza gordetzen lagunduko zaiela. Beharrezkoa da familia lehenengo hizkuntza horretan seme-alabekin mintzatzera animatzea. Aurrerago zehaztuko den bezala, azaldu behar da elebitasuna onuragarria dela arlo akademikoan eta lehen hizkuntzan maila altua izateak laguntzen duela euskara ikasten. Gainera, lehen hizkuntza bide inportantea da norberaren kultura-harrotasunerako eta autoestimurako (Coelho, 2016, 58. or.).

Ez hori bakarrik, irakasleak eskolak esperientzia positiboak eskainiko dituela adierazteko zeregina du; izan ere, familia askorentzat lagungarria izan daiteke jakitea seme-alaben heziketa ziurtatuko dela.

## IKASLE TALDEA HARRERARAKO PRESTATZEA

Eskola komunitateko partaide diren ikasleak ere harrerarako prestatu behar dira, horren arduraduna tutorea izanik. Ikastalde inklusiboa eratzea da helburua, eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna baliotuz. (Coelho, 2016, 133. or.).

Horretarako, irakasleak honako hau egin dezake:

- ❖ Interesa piztea harrera-jardueren bidez: ikasle berriari baliagarria egingo zaion informazioarekin liburuxka bat sortzea, haren hizkuntzan “ongietorri” jartzen duen mural bat sortzea...
- ❖ Palestinatik datorren lagun berria etorriko dela azaldu eta beste hizkuntza batean, gutxienez, aritzen dela, euskara ikasten ari dela

aipatuz. Komeni da modu positiboan aurkeztea; hots, “ez du euskaraz hitz egiten” bezalakoak ekidinez.

- ❖ Ikasle berriaren izena ahoskatzen ikasi eta arbelan idatzi.
- ❖ Ikasgelan Palestinako edota hizkuntza bera ezagutzen duen norbait egonez gero, harekin loturak egiten saiatu.

## IKASTETXERA IRISTEA

Lehenik eta behin, haurrari segurtasuna eman behar zaio, eskola eremua segurua dela ziurtatuz; izan ere, Palestinan ikasle, eskola eta maisuen aurkako erasoak sistematikoki eta nahita egiten dira. Beste batzuetan, eskola-esparruen aurkako tiroketak edo bonbak dira, eta, azkenik, maisuak ere hil beharreko helburuak dira. Horregatik hain da garrantzitsua eskola espazio seguru gisa aurkeztea. Beraz, eskola-komunitateak sentibera izan behar du ikaslearen premia sozial eta emozionalekin.

Lehenengo eguna bortitza izan daiteke haurrarentzat eta aurreneko inpresioa oso garrantzitsua da; ondorioz, gurasoekin gelan sar daiteke, eskolaren inguruko iritzi positiboa era dezan. Jarraian, tutoreak aurkeztuko du ikasle berria, haren izena ondo ahoskatuz. Horrez gain, komeni da ikastetxeko oinarrizko arauak, irizpideak eta betebeharrak denborarekin azaltzen joatea.

Onuragarria izan daiteke ezer baino lehen, irakasleak bere buruaren inguruko informazioa ematea; horrela, ikasle berriak konfiantza gehiago sentituko du haren inguruko informazioa emateko garaian. Ulermena ziurtatzeko argazkiak erabil daitezke eta hizkuntza ikaslearen adinera moldatu beharra dago.

Aurrerago, Palestina mapan kokatu daiteke eta haren inguruko galderak formulatu. Mapa politikoa gelako paretan itsatsi eta haurraren argazkia herrialdean kokatzeko aukera ere badago; horrela, ikasle guztien aurpegiak haren jatorrizko herrialdean ipiniz. Geroago, izenak ikasteko *Amaraura* jolasa erabil daiteke. *Ikus 4. Eranskina.*

Adinaren arabera, ikasle enbaxadore bat izendatu daiteke. Haurren ezaugarriengatik bost urteko gelan egongo litzateke hau egiteko aukera. Haren ardura ikasle berriaren erreferentea eta laguntzailea izatea da, erosoago senti dadin.

Ezinbestekoa da gelaren antolaketari bigarren begirada bat ematea. Kontuan hartzeko da, kasu honetan, Mariamek osotasunez ikusteko zailtasunak dituela;

horregatik, oztopoak izan daitezkeen elementuak kenduko dira eta beharrezkoak dituen objektuak eskuragarri eta ikusgarri utziko dira (jostailuak, edalontzia, komuneko papera, arropa...). Gainera, denbora hartuko da ikasgelaren antolamendua ikasleak ondo ezagutzeko, momentu horretatik aurrera askatasunez mugitu dadin.

Beste alde batetik, metodoari erreparatu behar zaio. Mariam ikasle ugariarekin batera egotera ohituta dago, idazmahai eta aulkiekin. Harentzat bortitza izan daiteke eskolaren funtzionamendua eta irakaslearen figura. Lehenengo egunetan zer egin jakin gabe egon daiteke; izan ere, hori ez da berak eskolaren inguruan duen ideia. Horrez gain, tutorearen hurbiltasunak harritu egin dezake. Horregatik guztiagatik, komeni da Mariami deskubritzeko denbora eta espazioa uztea, pixkanaka hurbiltzen hastea, berarekin jolastea, jostailuak erakustea...

Momentu honetatik aurrera garrantzi handikoa da irakaslearen begirada eta egingo duen behaketa. Behaketa teknika ezberdinak erabiltzea dago; baina, ohar anekdotikoak erosoan izan daitezke. Ohar hauek gelan gertatzen diren gertaerak jasotzea eta modu sinple eta argi batean horiek deskribatzea dute helburu; gertaera bakar bati egiten diote erreferentzia, ahalik eta azkarren jaso behar dira informazioak ez galtzeko eta soilik gertaerak jaso behar dira. *Ikus 2. Eranskina.*

Horrez gain, ohar anekdotikoetatik abiatuta tutoreak aurretik sortutako kontrolzerrenda bete dezake. Ezaugarriei, gauzatzei eta jardueri buruzko item batzuk dira, eta, horien arabera, behatzaileak soil-soilik adierazi behar du jokabide bat egin den ala ez, ezaugarri jakin bat behatutako jardueran agertzen den ala ez, eta abar. *Ikus 3. Eranskina.*

Irakaslearen rolari dagokionean, komeni da espektatiba edo itxaropen altuak izatea eta aurre-ezagutzak kontuan hartzea, harrera ona eta positiboa bermatuz. Gainera, haur berriaren inklusioa lortzeko asmotan, ikaskideen arteko elkarrengana bultzatu beharra dauka. Are gehiago, ezinbestekoa da irakaslearen arteko koordinazioaren alde egitea, heldu guztiak hizkuntza-irakasle bihurtzen direla gogoratuz eta komunikazioari garrantzia emanez.

Aipatzekoa da irakasleak haurren trebetasunak erakusteko egoerak sortu behar dituela; modu honetan, autoestimua indartzeaz gain, gainerako ikaslearen interesa edota arreta bereganatuko du. Mariam margolari trebea da eta hori aprobetxatuz gela museo bihurtu daiteke lehenengo asteetan. Errutinak ahalik eta lasterren zehaztu behar dira, hauek segurtasuna emango baitiote.



Azkenik, lagungarria da jakitea indarkeria kolektiboaren eraginpean egon diren haurrek jokaera beldurtia izaten dutela ondorengo egoeretan: polizia ikusten dutenean, suhiltzaileen hotsa entzuten dutenean, helikoptero bat ikusten dutenean...

BIZITAKO NEGATIBOAK BALIABIDEAK	ESPERIENTZIA KUDEATZEN ETA	TRAUMATIKOAK ETA GAINDITZEN	ERAGINDAKO LAGUNTZEKO	ONDORIO PAUTAK ETA
---------------------------------------	----------------------------------	-----------------------------------	--------------------------	--------------------------

Haurtzaroa eta nerabezaroa funtsezkoak dira pertsona baten garapen psikologikoan eta psikosozialean; beraz, aldi horietan bizi izandako egoera kritikoek ondorio iraunkorrak izan ditzakete (CIRC, 2017, 8. or.). Horregatik, haurrak bizitzako esperientzia traumatikoak ezagututakoan, laguntza psikosoziala ematera ekingo da; hots, ongizate psikosoziala babestu edo sustatzea edota gaixotasun mentalak saihestea edo tratatzea helburu duen edozein motatako tokiko edo kanpoko laguntza (IASC, 2007).

Esku-hartze psikosozialak haurra emozionalki egonkortzea lortu behar du, autoestimua sustatuz, izaki sozial gisa nork bere burua aitortuz, gaitasunak eta komunikazio-trebetasunak lortuz, horrek familiarekin, ingurunearekin eta komunitatearekin harreman tolerantetarako eta baketsuak garatzea ahalbidetzen baitu (Arias eta Bohórquez, 1999).

Aintzat hartu behar da laguntza edo esku-hartze psikosozialak ez duela kalterik eragin behar edo, gutxienez, ahalik eta inpaktu negatibo txikiena sortu behar duela. Momentu oro haurren erresilientziari buruzko erantzunetan oinarrituta lan egin behar da. Haurrari ezin zaio defentsarik kendu; izan ere, hein handi batean bizirik irauteko aukera eman dietelako. Beraz, banakako baliabideak eman beharko zaizkio, indarkeriak geldiarazi duen garapen psikoafektibo normalizatu baterantz aurrera egiten laguntzeko, pixkanaka haurra egungo egoerara hobeto egokitzen diren baliabideak izan ditzan (Laín).

## 1. IRAKASLEARI ZUZENDUTAKO OINARRIZKO HAINBAT GOMENDIO

Hasierako momentu batean komeni da haurrarekin denbora gehien pasako duen helduak zenbait ideia argi edukitzea (Villanueva, 2015):

- ❖ Ez behartu xehetasunak kontatzera, garrantzitsua da gertatu zitzaionaz hitz egitea; baina, prest dagoenean egingo du. Bizi izan zuzena partekatzeko

## **Graduko Amaierako Lana.** Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

prest badago, hitz eginez, negar eginez, marratuz edo idatziz (adinaren arabera) adierazteko aukera eman.

- ❖ Epaitu gabe eta sentitzen duena gutxietsi gabe entzun ezazu. “Ez da munduaren amaiera,” “ez zen ezer gertatu” edo “izan zaitez ausarta” bezalakoak saihestuz.
- ❖ Lagundu zer gertatu zitzaien ulertzen. Ohikoa da umeak haren buruari errua botatzea.
- ❖ Gogoratu ahal duzun guztia egingo duzula laguntzeko, eskolan seguru dagoela, egoerak hobetzera egingo duela...
- ❖ Zarata bortitzak saihesten saiatu.
- ❖ Giro segurua sortu eta errutinak ahalik eta lasterren ezarri.
- ❖ Haurrak ez dira miniatuzko helduak, eta, beraz, ez zaie erantzun behar hala balira bezala.
- ❖ Haurrak erresilienteak dira. Gaitasun handia dute bizitzako oztopoak eta egoerak gainditzeko.
- ❖ Ez saiatu jakiten ez diren galderari erantzuna ematen.
- ❖ Urduri dagoenean edo negar egiten duenean haurrarekin kontaktu fisikoa izatea. Baliteke jarduera komunetan parte hartu nahi ez izatea; hortaz, garrantzitsua da ez behartzea, baina, haren erritmoa errespetatuz, denborarekin animatzen joan, gainerakoekin konfiantza lor dezan.
- ❖ Haurren hizkuntza naturala jolasa da, eta hori haientzat adierazpide atsegina da.
- ❖ Kontuan hartu haurrak irakaslearen rola inguruan duen irudia eta ideia ezberdina izan daitekeela, heldua figura autoritario gisa ikustera ohituta egon daiteke.
- ❖ Haurrak biolentzia normalizatuta eduki dezake.

## 2. ATXIKIMENDU-FIGURA SEGURUAK ESKAINTZEA

Betancourten eta Khanen ustez (2008), indarkeriak haurrengan dituen ondorioak eta horiei aurre egiteko duten gaitasuna hurbileko atxikimendu-figuren eta konfiantzazko helduen presentziaren arabera izango dira neurri handiagoan; izan ere, adingabeek segurtasuna bilatzen dute zaintzaileengan arriskuan edo mehatxatuta sentitzen direnean. Haren ongizatea atxikimendu-figuren eskuragarritasunaren eta erantzunaren arabera da neurri handi batean; beraz, familiaren eta irakaslearen jardunak rol nagusia du adingabearen ongizate emozionalean (Halevi et al., 2016; Masten eta Narayan, 2012).

Hain da garrantzitsua atxikimendu-figuren hurbiltasuna, ezen, II. Mundu Gerrak adingabeengan izan zituen ondorioei buruzko azterlanetan frogatu baitzen hobe zela psikologikoki beren familiekin batera bonbardaketa-guneetan egotea, haiengandik urrun eta atxikimendu-figuren eskuragarritasunik gabe (Eisenbruch, 1988; Henshaw eta Howarth, 1941, Betancourt eta Khan, 2008).

Hortaz, esan bezala umearen ongizatea bilatzeko asmotan irakasleak harreman zuzena izan behar du haurren atxikimendu-figurarekin, elkarlanean arituz. Are gehiago, tutorea bera ere erreferentziazko figura segurua bihurtu behar da, emozio segurtasuna emanez; izan ere, haurrak segurtasun irudiak bilatzen ditu etengabe. Helduaren funtzioa haurrari bere buruarekiko, besteekiko eta munduarekiko irudikapen baikorrak eraikitzen laguntzea da; modu honetan, lasaitasuna, beldurrik eza eta segurtasuna eskainiko zaizkio ikasleari.

Irakasleak, orduan, haurren konfiantza eta segurtasuna irabazteko gertatzen dena ondo azalduko dio, ahal den neurrian kontaktu fisikoa bilatuko du, arauak ipiniko ditu, modu autonomoan aritzen utziko dio eta entzuna eta ulertua dela sentiaraziko dio. Horrez gain, komeni da ondorengo jarduerak batera gauzatzea: sukaldaritza, mural bat margotzea, jolas sinbolikoan aritzea...

## 3. KONEKTAGARRITASUN SOZIALA EDO GIZARTE LOTURA

Ezinbestekoa da tutoreak ondorengo aspektuak kontuan hartzea: batetik, haurra haren testuinguru sozialaren, kulturalaren eta familiarraren barruan irudikatzea eta kokatzea; bestetik, haurrari indarra, baikortasuna, motibazioa, ahalduntzea eta laguntza ematea; eta azkenik, arazoak eta desberdintasunak izatea bizitzaren zati

normala dela onartzea, hori hazteko aukera gisa hartuz patologia gisa beharrean (Seligman eta Reichenberg, 2014).

Aurrekoa behin jakinda, gizarte lotura funtsezkoa da gizarteko kide sentitzeko. Straunchek (2001) "gizarteratzea" deitu zion sentimendu horri, eta hori gabe trauma bat modu eraginkorrean gainditzea zailagoa dela planteatu zuen. Hortaz, gizartearen laguntzak sentimendu positiboak sustatzen lagun dezake. Halaber, laguntza-harremanak horiek garrantzitsuak dira hainbat testuingurutan (familiar eta eskolan, adibidez), bai gertaera traumatikoa izan aurretik, bai ondoren. Gerrarekin zuzeneko esperientziak izan dituzten haurrak zaintzen dituzten pertsonen babesak lagundu egiten die gizarteratzen. Horregatik guztiagatik, haurra gizarteko kide sentitzearen ardura tutorearena da neurri handi batean.

Ikasleek eskolaren bitartez gizarte-arauak, harremanak izateko moduak eta arazoak konpontzeko trebetasunak ikasten dituzte. Ikaskuntza hauek batez ere ikaskideen bidez ematen dira, eta garapen osasuntsua eta ez-osasuntsua ekar lezakete (Nelson, Lott eta Glenn, 2000). Eskola, hortaz, bereziki garrantzitsua da izaera eta trebetasun sozialak garatzeko orduan. Hona hemen gizarte-loturaren bitartez lortzea dauden helburuak:

- ❖ Ikasleek ulertzea bere hautu pertsonalek etorkizunean eragina dutela.
- ❖ Ikasleek bizitzan aukera egokiak eta positiboak egin ditzaketela uste izatea.
- ❖ Ikasleek oinarrizko laguntza-egitura finkoa garatzea, eta egitura horri eustea.
- ❖ Ikasleak besteez arduratzea.
- ❖ Ikasleak modu asertiboan euren artean komunikatzea.
- ❖ Ikasleek beren gain hartzea euren ekintzen erantzukizuna.

#### 4. JOLASAREN GARRANTZIA

Irakatsi eta ikasteko prozesua kalitatezkoa da haurra giro erosoan jolastuz garatzen denean, konfiantza eta askatasun sententzioaz jolastuz; izan ere, oharkabean traumak sakabanatu eta trebetasunak ikasten dira (del Carmen Párraga-Salvatierra et al., 2021).

Jolasak hainbat ezaugarri ditu, atsegingarria baita, jolasten ari diren gizakiei plazera ematen dielako, naturala eta motibagarria, berez egiten delako eta borondatez

egiten delako; gainera, ez dago hori egiteko betebeharririk, modu askean egiten den jarduera baita. Are gehiago, haurrak jolasten direnean, bizitzen ari direnaz bestelako mundu batera garraiatzen dira; orduan, aske sentitzen dira, fantasiaz inguratutako agertoki batean sentitzen direlako (del Carmen Párraga-Salvatierra et al., 2021).

Jolasa adierazgarria da, sentimendu eta portaera sozializatzailerik eta interaktiborik ezberdinak agerian uzten dituelako. Gainera, bizikidetzaren soziala, lankidetzaren eta talde-lanaren bultzatzen ditu, eskola-giro harmonikoa eta osasungarriak sortuz, haurrak modu egokian erlazionatzen direlako eta emozioak sortzen dituztelako, eta horrek autoezagutzak sortzen, hazten eta fisikoki eta emozionalki behar bezala garatzen laguntzen dielako (Hernandez, 2014).

Jolasa edozein trauma emozional sakabanatzeko modurik gizatiarrena eta terapiarik eraginkorrenetako bat da. Haurra aske sentitzen da, gai da istorio berriak sortzeko, besteak eta inguruan gertatzen dena ulertzeko eta harmonian bizitzeko. Behar bat izanez gero, jolastea modu espezifiko bat da haurrak errealitateari heltzeko, zailtasun fisikoak, sozialak edo intelektualak dituenen (Linaza, 2013).

Jolasa estrategia psikopedagogikoa gisa aplikatzea funtsezkoa da haurrak ikaskuntzan eta bizitzan zehar ager daitezkeen etapa eta arazo desberdinak gainditzen ikas dezaten. Jolas kooperatiboak lagungarriak dira haurrek elkarrekintza ona izan dezaten, harremanak sendotuz eta parte-hartze aktiboa modu esanguratsuan berreskuratuz (del Carmen Párraga-Salvatierra et al., 2021).

Nahiz eta jolas libre eta autonomoak garrantzi handia duen, hezitzaileak indarkeria kolektiboa jasan duen haurrarekin ahalik eta gehien jolastea onuragarria izan daiteke. Esku-hartze batek ez du nahitaez eta soilik haurraren traumarekin lotuta egon behar, egoera positiboetan zentratutako esku-hartzeak balio terapeutikoa izan dezake, bizitakoaz deskonektatzeko aukera emanez (Terradas eta Achim, 2016).

## 5. HIZKUNTZA BERAGANATZEA

Hizkuntzaren beraganatze prozesua ez da kontu erreza izaten; izan ere, haur bakoitzaren egoera komunikatiboa ezberdina izaten da. Aintzat hartu beharrekoa da miseriaren, desesperazioaren eta iskanbilen ondorioz heldu batzuk isildu egiten direla eta haurrarekin duten harremana minimoa dela; hortaz, txikiak ez du lehen hizkuntza behar bezala garatzen. (Coelho, 2016, 43. or)

Iritsi berria den haurrari mantentze-programa deituriko hizkuntza-programa eskaintzea izango litzateke idealena, honen helburua hizkuntza gutxitua duen ikasleak benetako elebitasuna lortzea izanik; eskolak, beraz, gizartean gutxitua dagoen hizkuntzari lehentasuna eman behar dio. Irakaskuntza haurraren ama-hizkuntzan egiten da, baina gizarteko hizkuntza nagusia ere sartzen da, tokian tokiko eran eta neurrian (Bilbao, 1998).

Bilbao-ren (1998) arabera emaitza arrakastatsuagoak lortzen dira: haurrak gorde eta landu egingo du bere ama-hizkuntza, haren jatorrizko hizkuntza eta kultura ongi estimatuko ditu, gizarteko hizkuntza irakaskuntza elebakarreko hurrek bezain ondo menderatzera iritsiko da eta eskolako edukietan elebakarren pareko emaitzak lortuko ditu.

Elebitasunari dagokionean, hizkuntzen jabekuntzen prozesu gehitzaileagatik egin behar da apustua (Lambert, 1974); hau da, haurraren lehenengo hizkuntzari bigarren bat gehitzea. Modu honetan bi hizkuntzak baloratuak izango dira eta haurrak onuragarriak izango diren ondorio linguistiko, kognitibo, emozional eta akademikoak lortuko ditu.

Horrez gain, Cummis-en elkarmenpekotasunaren teoriaren arabera, azalean, hizkuntza erabiltzen dugunean, hizkuntza bakoitza gauza bat dela eta bestearekin loturarik ez duela ematen du; baina sakonean, agerian ez den mailan, komunikaziorako gaitasuna bat bera da hizkuntza guztietarako. Hortaz, azaleko gaitasunaren eta erabileraren aldetik banatuta daude hizkuntzak, baina sakoneko gaitasunaren aldetik, bat eginda. Umetan sakoneko gaitasun hori hizkuntzaren batean landu behar da; izan ere, hizkuntza batean landutako sakoneko gaitasuna bigarren hizkuntzara transferitu egiten da.

Euskararen irakaskuntzari erreferentzia eginez, ezinbestekoa da haren ama-hizkuntzaren presentzia bermatzea, esperientzia kentzailerik ez gertatzeko. Aurretik aipatutako transferentzia eman dadin, ama-hizkuntzarekiko motibazioa eta erabilera sustatu behar dira eskolan. Horrez gain, hizkuntza interakzioen bidez irakatsi behar da: esapide funtzionalak, input eta output egokia, helduaren aldamiaje lana...

Aldamiaje sendo bat eskaini behar zaio haurrari hizkuntza ikasterako orduan, eta lanaren maila kognitiboa igotzen joan, eskaintzen zaion laguntza gutxituz. Honen ostean, elkarrizketa edo arestian aipatutako interakzioak bideratzeko hainbat estrategia: Ikaslearen erantzun guztiak onartzea, adibidez irakasleak egindako galderari onomatopeia bidez erantzuten badu; berformulazioa, haurrak esandako

## Graduko Amaierako Lana. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

esaldiari koherentzia eman eta birformulatuz; hedapena, beronen esaldiak osatuz; ordezkapena, egoera horretarako egokia ez litzatekeen hitzak ordezkatzuz...

Azkenik, ona hemen Saioa Larrazaren (2019) apunteetatik ateratako, eta Cummins-en teoriarik oinarritzen diren input egokia emateko estrategiak:

Fonetika, fonologia	Morfologia, sintaxia	Semantika
Ahoskera argi-argia Astiroago Eten gehiago Ahoskera eta entonazioa oso markatua Kontrakzioak ez	Esaldi laburrak Esaldi sinpleak Menpeko esaldi gutxi Esaldien arteko loturak oso nabarmenak Esaldiaren ordena normala Orainaldia (orainaz hitz egiten da) Elipsi gutxiago (besteetan ixiltzen ditugun hitzak aipatuz) Galdera gehiago	Izen eta aditz asko (adjektibo gutxiago..) Lexiko gutxiago eta maiztasun handikoa Esamolde gutxi Gai arruntak, sinpleak eta ezagunak.

## 6. HIZTEGIA

Garrantzitsua da lehenengo hilabeteetan, ahal den neurrian, haurren hizkuntza eta euskara tartekatzea. Modu honetan, haurrak eskolak haren hizkuntzarekiko interesa duela sumatzeaz gain, ulermen arazoak murriztuko dira. Horregatik guztiatik, komeni da erreferentziako pertsonak oinarritzeko hitzen eta esamoldeen berri izatea eta hauek erabiltzea:

- Egun on: sbah el-jir
- Arratsalde on: masa el-jir
- Mesedez: Teslam
- Ondo etorria: Ahlan w sahan
- Eskerrik asko: shukran
- Ez horregatik: Afwan
- Barkatu: Aan eznak
- Gero arte: Ila el likaa
- Agur: Masalama
- Bai: Eh
- Ez: Laa
- Ondo: Mesyan
- Gaizki: Meshim syan
- Ezer ez: Wala
- Ados: Akid
- Zerbait gertatzen zaizu?: Shu malek?

- Zein da zure izena?: shu ismak? (mutila) / shu smitek? (neska)
- Zenbat urte dituzu?: shHal f omrek?
- Etxea: Al-mánsi
- Aulkia: Kúrsi
- Mahaia: Táuila
- Komuna: Tualét
- Komuneko papera: Uáraqat almirhád
- Ura: Mai
- Atzo: Elbaregh
- Gaur: Alyaum
- Bihar: Boukra
- Gero: Baaden
- Orain: Hala
- Goian: Fouq
- Behean: Taht
- Urrun: Ba'iid
- Gertu: Qrib

## 7. PALESTINA GELARA EKARTZEA

Haurrak harren jatorrizko lekuko usainak, zaporeak, soinuak edota sentsazioak... modu positiboan gogora eta harrotasunez presente izan ditzan, irakasleak Palestina, ahal den neurrian, gelara ekar dezake; horretarako, ikasle berriaren gurasoen laguntzaz baiatu daiteke.

Palestinako sukaldeak aberatsak dira oso; izan ere, mundu osoan ezagunak diren ehunka urteetako janari tipikoak eta herrikoiak dituzte. Horregatik guztiagatik, errezetak ikasgelan gauzatu daitezke ikasle guztien inplikazioarekin: Hummus edo falafel. *Ikus 5. Eranskina.*

Beste alde batetik, jolas tradizionalak gainerako ikasleekin partekatu daitezke. Brwanjeya adibidez, mundu osoan Nine Men Morris bezala ezaguna, bi pertsonako jolas bat da, helduek zein hurrek jokatzen dutena. Bere taulak, lau lerroz elkartuak dauden hiru karratu ditu. Jokalari bakoitzak bederatzi pieza ditu mugitzeko. Jokalariak beren piezetako hiru lerro zuzenean, bertikalean edo horizontalean jartzen dituzte elkarren ondoko puntuetan, errota bat eratuz, eta etengabe kendu behar diote pieza bat aurkariari taulatik. *Ikus 6. Eranskina.*



## 8. AMETSGAIZTOAK GAINDITZEN LAGUNTZEKO PAUTAK

Norvegiako Errefuxiatuaren Kontseiluak, 2010-2011 ikasturtean, ekimen bat jarri zuen martxan Gazako eta Hebrongo ikastetxeetan, gatazka egoerak eragindako amesgaiztoak gainditzeko.

Haurrak iluntasunean gordetzen duena argira ateratzeko, irakasleak amesgaitzak marraztera animatu behar du; modu honetan, bizitako beldurrak eta izugarrikeriak ikusaraziko ditu, eskolan zein eremu pertsonalean aurrera jarraitu ahal izateko. Margoak, kasu askotan, kontatzen ez dakizkiten gertaerez hitz egiteko bidea izaten dira. CNRko arduradunaren hitzetan (2015), amesgaiztoak marrazkiaren bidez azaltzean distantzia hartzen dute eta bizi dutena adieraz dezakete.

Marrazkiek, normalean, gertatutakoaren hondamendia islatzen dute, baita gatazkan dauden bi aldeak ere. Horregatik, hezitzaileak ondorengo irudiak aurkitzea ohikoa dela jakitea du: tankeak, helikopteroak, suziriak jaurtitzen dituzten gerraontziak, fusilekin armatutako soldadu israeldarrak, putzu gorriak, lurrean etzandako pertsonak, hiyabaz estalitako amak beren seme-alabak babestu nahian, edo israeldarren erasoetatik salbatzen ez diren eskolak, anbulantziak eta osasun-langileak.

Errepresentazioez gain, komeni da erlaxazio eta arnasketa teknikak irakastea; horrela, euren barneko bakearekin berriz konektatzeko eremu segurua aurkituko du ikasleak.

Hona hemen erlaxazio eta arnasketa jarduera batzuen adibideak (Mariem Dris Ahmen, 2007, 7. or.):

- ❖ Inurria eta elefantea: inurria txikia denez, astiro eta poliki hartzen du arnasa, elefantea, ordea, handia da eta azkar eta fuerte hartu behar du arnasa. Modu honetan, arnasa hartzeko modurik egokiena inurriarena dela ulertuko du haurrak.
- ❖ Puxika: umeak ulertu behar du xaxatu eta puzten den puxika bat dela; horrela, sudurretik arnasa hartuko du eta ahotik iraungiko du. Besoekin lagun daiteke; hots, besoak ireki daitezke puxika puzterakoan eta itxi xaxatzerakoan.
- ❖ Erlaxazioa: haurra koltxoneta batean etzanda egonik, hezitzaileak urduritasuna kontrolatzeko aukera dagoela azalduko dio. Irakasleak, orduan, astiro eta baxu istorio bat kontatuko du, musika atzetik entzungo dela.

- ❖ Zopa beroa: haurrak esku artean zopa duela imajinatuko du. Irakasleak koilara hartzeko esango dio, baina kontuz ibiltzeko beroa edo hotza egon daitekeelako. Horregatik, helduak beroa dagoela esanez gero, umeak putz egin beharko du.

## 9. BELDURRARI AURRE EGITEN LAGUNTZEA

Haurrek segurtasuna hauteman, familiaren edo gertuko helduen laguntza sentitu, babestu eta gertatzen dena ulertu behar dute. Horregatik guztiagatik, hona hemen beldurrari aurre egiten laguntzeko zenbait gomendio (Beristain eta Romero, 2012, 11-12. or.):

- ❖ Umearekin hitz egitea eta hitz egiten uztea.
- ❖ Harekin jolastea, marraztea.
- ❖ Bere ulermen-mailan zer gertatzen zaion azaltzea, nahastuta egon ez dadin.
- ❖ Gauzak horrela direla ez ukatzea.
- ❖ Irakaslearen erreakzioak zaintzea.
- ❖ Errietaryk ez egitea, tentsioaren eta beldurraren ondorioz horrela adierazten dela ulertzea.
- ❖ Irakaslearen maitasuna erakustea.
- ❖ Egoera azaltzea.
- ❖ Aktibo mantendu, lanean, talde-jardueretan, etab.
- ❖ Nolabaiteko egunerokotasuna eta errutinak berrezartzea. Krisi-egoeretan, horrek lagundu egiten die haurrei segurtasun-zentzuari eusten eta aktibo egoten, bereziki eskolaren inguruan.

Haurrari euren beldurrak identifikatzen laguntzeko, beldurraren eskailerara eraiki daiteke. Ikasleari haren beldurrak zerrendatzen lagunduko zaio, hauek identifikatuz. Hau behin eginda, beldurraren eskaileran intentsitatearen arabera kokatuko dira.

## 10. OLDARKORTASUNARI AURRE EGITEN LAGUNTZEA

Hona hemen oldarkortasunaren kontrolerako Beristain eta Romero (2012) adituek formulatutako zenbait gomendio:

- ❖ Elkarrizketa. Berarekin garaiz eseri, entzun eta hitz egin ahal izateko.
- ❖ Sentitzen duena adierazteko konfiantza ematea.
- ❖ Kasketaldiei jaramonik ez egitea, agresibitatea ateratzen uztea eta ondoren egoerari berriz heltzea.
- ❖ Haren kegak planteatzeko estimulatu, baldin baditu, baina errespetuz. Entzungo zaiola ziurtatu, kontuan hartu eta beste modu batera adieraztera animatu.
- ❖ Arauak jokabidea birbideratzeko modu gisa ez erabiltzea, arazoari heldu gabe. Ez dauka zentzu handirik arauak jartzen saiatzeak tentsioaren kausari erreparatu gabe.
- ❖ Tentsioa ateratzen lagunduko dioten jarduera batzuk egitea, guzti honetan psikomotrizitateak paper garrantzitsua betetzen duela. Horrez gain, rol hau bereganatzen duenean irakasleak kartoizko kutxekin dorre bat eraiki diezaioke; horrela, nahi adi aldiz botatzeko eta berriro eraikitzeo aukera izanez.

<b>11. DOLUA – BIZIPEN TRAUMATIKOAN HURBILEKO PERTSONA BATEN HERIOTZA BEHATU DUTEN HAURRAK</b>
--

Ezin da heriotza aldatu, ezta dolu batek eragiten duen sufrimendua ezabatu ere. Gogoan izan garrantzitsua dela gertuko senide bat galdu duen haurra entzutea, haren tristura edo haserrea ulertzea. Bere erreakzio asko arraroak izan daitezke; baina, benetan bizi izan duen gertaera izugarriaren ondorio dira. Batzuetan, helduek uste dute haurra ez dela konturatu, eta gauzak ezkutitzen saiatzen dira; baina ideia horiek okerrak dira. Haurrek gertatutakoa ulertu behar dute eta gauzak ezkutitzeak oso emaitza txarrak ematen ditu (Beristain eta Romero, 2012, 17-19. or.).

Aipatutako adituen hitzetan, haurrak hildakoak bakarrik utzi duela pentsa dezake. Umea oso txikia bada, ez du hori hitzez esango, baina senti dezake. Gainera, berarekin ez egotearen errua haren buruari bota diezaioke. Batzuetan, triste egon beharrean geldiezinik egongo da, zaila egiten zaiolako senidearen galera behin betirako dela pentsatzea. Hasieran, agian ez du hurbileko pertsona gehiago ez duela ikusiko onartu nahi.

Gomendioei dagokienean, senidearen heriotzari hobeto aurre egin ahal izateko, garrantzitsua da haren oroitzapen on bat izatea, eta ez oroitzapen triste bat bakarrik. Oso triste jarri gabe bere senidea gogoratzen duenean, orduan hobeto egongo da. Garrantzitsua da argazkiak begiratzea, pertsona nolakoa zen esatea, bere galderei

konfiantzazko giroan erantzutea. Batzuetan, helduek mina edo ondoeza sentitzen dute horri buruz hitz egiten dutenean, eta horregatik saihesten dute gaia hurrekin ukitzea; baina, horrela, hurrek ez dute adierazpenik egiten edo ez dute galera barneratzen lagunduko dien informaziorik izaten (Beristain eta Romero, 2012, 17-19. or.).

Hona hemen dolua lantzeko zenbait liburu:

- ❖ Arnal, T. – Blasco, J.A. (2020). *Argalas*. Alicante: Fun readers.
- ❖ Beuscher, A. - Haas, C. (2004). *Más allá del gran río*. Barcelona: Juventud.
- ❖ Erlbruch, W. (2007). *El pato y la muerte*. Arcos de la Frontera (Cádiz): Bárbara Fiore Editora.
- ❖ Ramón, E. - Osuna, R. (2003). *Ez da erraza, katagorri*. Pontevedra: Kalandraka.

## 12. NARRAZIO-TEKNIKA: OSATZEKO KONTAKIZUNA

Narrazio-teknika hau elkarrizketarako eta interakziorako modu erraza da, adingabeak haren bizitzako unereren batean bizi izan dituen egoeren aurrean sentitzen duena sakontzeko naturaltasunez kontatuz; eta lotura egin dezake iraganeko gertaerekin, afekzio emozional zein fisikoren bat eragin ziotenekin (Ascuntar eta Fonseca, 2018, 47. or.)

Muñoz adituaren arabera (2006), lau urte inguruan, haurrak gai dira azaltzeko beraien nola izan ditzaketen alda daitezkeen benetako edo gezurrezko sinesmenak, eta besteek nola izan ditzaketen eurenak ez diren beste sinesmen batzuk eta nola joka dezaketen haien arabera. Ildo horretan, narratibaren teknika hau baliagarria da bizitako gertaera traumatikoekin lotutako gaiari heltzeko, hurrei gordetzen edo sentitzen ari direna lasaitasunez adierazteko aukera emango dielako.

Aurrekoa behin jakinda, irakasleak hasierako esaldi batzuk formulatuko ditu; beti ere, protagonisten etorkizuna zein izango den kontatzeko aukera ematen duten esaldiak izango dira, iragan batean indarkeriak eragin zizkion lesio psikosozialak behatzeko eta ulertzeko aukera ematen dutenak. Hortik aurrera ikasleak haren ipuina sortzen jarraituko du hasiera, korapilo eta amaierarekin.

## 7. ONDORIOAK

Esan bezala, nire esperientzia pertsonalak esaten dit hezkuntza-sistemak eta gizarteak berak "haur" multzoaren barruan sartu ohi dituela umeak. Lehen Hezkuntzara ikasle bat iristen denean haren maila akademikoari erreparatzen zaio, bere alderdi pertsonal zein psikologikoa alde batera utziz. Haur Hezkuntzaren kasuan, egoera ez da asko aldatzen. Ikaslearen portaera, besteekin erlazionatzeko modua, arreta gaitasuna, aurrerapen akademikoak... bezalakoak kontuan hartzen dira; baina, aipatutakoaren atzean dagoenari ez zaio behaketa sakonik egiten. Askotan, gainera, familiak traba edo oztopo moduan ikusten dira, haurraren garapen integralerako guztiz lagungarriak eta beharrezkoak direla ahaztuz. Kalitatezko hezkuntza sortzeko beharrezkoa da euren parte-hartzea sustatzea; azken finean, komunitate saretua guztion artean eraikitzen da.

Arestian esandakoa dokumentu ofizialetan ere ageri da islatuta. Eusko Jaurlaritzak harrera-planak diseinatzeko txostenak uzten ditu eskolen eskuetan, inongo sakontasun mailarik gabe. Kasu honetan "ikasle atzerritarrak" izeneko sakuan sartzen ditu estatutik kanpoko haur guztiak. Berdin da Palestinakoa, Paraguaikoa, Kanbodiakoa, Ruandakoa edo Errumaniakoa izatea. Haurrek eta euren familiek harrera beroa eta espezifikoa, orientazio-zerbitzu lagungarriak eta hasierako ebaluazio bat behar dute; beti ere, ingurune fisiko eta sozial inklusiboa eta laguntza-zerbitzuak eskainiz.

Mariam bezalako ezaugarriak biltzen dituen ikasle bat ikasturteko edozein momentutan gure hezkuntza-sistemara helduko balitz, ikasle talde bat eta tutore bat esleitu eta hurrengo egunean zenbait laguntza akademikorekin batera hasiko litzateke. Baina, kasu honetan Mariamek laguntza espezifikoa behar du. Arlo akademikoan fokoa jarri baino lehen, beharrezkoa da haren ongizate emozionalari eta garapen integralari erreparatzea; izan ere, zentzu honetan prestatuta ez badago, ezingo da inoiz akademikoki garatu. Mariamen motxila pisutsua da oso, gure ardura da haren zama gutxitzea eta orekatzea.

Aintzat hartzekoa da haur hauek baliabide emozional, kognitibo eta sozial gutxiago dituztela eta irakasleon esku dagoela behar adinako erramintak eskaintzea eta euren beharrak asetzea. Gure ardura da zenbait bide aurkitzea jatorri guztietako eta bizipen mota guztietako ikasleen beharrei erantzuteko eta haien indarguneak

oinarri hartzeko, ondoren irakaskuntza-prozesua eraldatzeko asmotan. Baina, Eusko Jaurlaritzaren ardura ere bada txosten erabilgarri eta osoak sortzea eta eskaintzea.

Haurren lehen bizipenak eta esperientziak kontuan hartzea ezinbestekoa da; modu honetan, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ikasle, familia eta irakasleentzat eraginkorra izango baita. Eskola gizarte-aldaketarako eragile bihurtu behar dugu, gizarte-armoniaren eta justiziaren aldekoa.

Haur Hezkuntzari dagokion adin tartea hau ezinbestekoa da pertsona baten oinarri sendoa eraikitzeko eta garapen integral egokia emateko. Beraz, etorkizuneko garbitzaile, mediku, irakasle, elektrikari... izango diren horien zimenduetan inklusioaren, aukera berdintasunaren, ezberdintasun kulturalaren, errespetuaren... ideiak ondo sendotzea halabeharrezkotzat dugu. Etorkizuneko helduak dira eta.

Azken hausnarketa gisa, munduak umeak ahazten ditu lehen munduko herritarrak ez direnean. Baina, edozein gerratan haurrak dira lehendabizi sufritzen dutenak eta gehien sufritzen dutenak. Umeak diren lez, benetako babes berezia behar dute, edozein indarkeriaren aurkako benetako ezkutua. Gogoratzekoa da indarkeriak haurrengan duen eragina suntsigarria dela, euren barne mundua txikitzen duela, umeen ongizate metala eta fisikoa betiko kaltetuta utziz. Haurrak baino ez dira.

## 8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

- ❖ Achim, J., & Terradas, M. M. (2016). Sofrimento nos laços pais-filhos: práticas educativas fundadas na mentalização na proteção da infância. *Estilos Da Clinica*, 21(1), 170–188. Hemendik berreskuratua: <https://doi.org/10.11606/issn.1981-1624.v21i1p170-188>
- ❖ Ahmed, M. D. (2010). Actividades de relajación en Educación Infantil y Primaria. *Innovación y experiencias educativas*, 34, 1-9.
- ❖ Alberca, M. J. I. (2015). Escuelas y educación en los conflictos armados. *Pre-bie3*, (2), 7.
- ❖ Amnistía Internacional. (2021). *Israel y los Territorios Palestinos Ocupados: Una vez más, el ciclo de impunidad obliga a la población civil a pagar el precio de la escalada de hostilidades*. [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: <https://www.amnesty.org/es/latest/news/2021/05/israel-opt-cycle-of-impunity-leaves-civilians-once-again-paying-the-price-amid-escalation-of-hostilities/>
- ❖ Ascuntar, H., & Álvarez Fonseca, C. P. (2018). Diseño de una lista de chequeo que permita identificar las secuelas psicosociales en niños, niñas y adolescentes–NNA; víctimas de desplazamiento forzoso, como consecuencia de la confrontación armada.
- ❖ Beristain, C. M., & Romero Medina, A. (2012). Guía de ayuda a niñas y niños afectados por violencia y desastres: Guía No. 6.
- ❖ Besalú, X. Aspectos generales de la diversidad cultural y educación intercultural.
- ❖ B'Tselem. (2021). *A regime of jewish supremacy from the Jordan river to the Mediterranean Sea: this is apartheid*. [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: [https://www.btselem.org/publications/fulltext/202101\\_this\\_is\\_apartheid](https://www.btselem.org/publications/fulltext/202101_this_is_apartheid)
- ❖ Bilbao, X. (1998). Hezkuntza elebidunaren antolakuntza: programa motak (4.kap). *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Bilbao: EHU

- ❖ Borobia López, D., & Bustamante, J. C. Hijos/as de la guerra y ajuste psicosocial. Propuesta de intervención en educación infantil con menores procedentes de zonas en conflicto.
- ❖ Brichs, F. I. (2003). El movimiento sionista ante la partición de Palestina. *Scripta Nova. Revista Electrónica de Geografía y Ciencias Sociales*, 7(133-156).
- ❖ Coelho, E. (2016). Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea.
- ❖ CICR. (2019). *Los niños en tiempo de guerra*. [Eskuorria].
- ❖ Defense for Children Palestine. (2021). *Right to a Childhood* [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: [https://www.dci-palestine.org/right\\_to\\_a\\_childhood](https://www.dci-palestine.org/right_to_a_childhood)
- ❖ del Carmen Párraga-Salvatierra, N., Vera-Arcenales, F. O., Bazurto-Briones, N. A., Mendoza-Castro, A. M., & Barcia-Briones, M. F. (2021). El juego como estrategia psicopedagógica y su impacto en la calidad educativa de los estudiantes de básica media. *Dominio de las Ciencias*, 7(1), 903-919.
- ❖ Díaz Rodríguez, M. (2017). Menores refugiados: impacto psicológico y salud mental. *Apuntes de Psicología*, 35 (2), 83-91.
- ❖ Garcia-Escamilla, D. (2003). Enseñan como superar traumas. *Reforma*, 7, 7-7.
- ❖ Humanium. (2013). *Descubriendo los derechos infantiles en Palestina*. [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: <https://www.humanium.org/es/palestina/>
- ❖ Iglesias Rodríguez, J. J. (2012). La violencia en la historia: análisis del pasado y perspectiva sobre el mundo actual. *La violencia en la historia*, 1-332.
- ❖ Laín, M. C. La resiliencia: Fortalezas de una infancia dañada. *Intervención psicológica en menores expuestos/as a la violencia de género aportes teóricos y clínicos*, 93.



- ❖ Larizgoitia, I., Izarzugaza, I., Iraurgi, I., Ballesteros, J., Forero, C. G., Markez, I., & Alonso, J. (2011). Impacto de la violencia colectiva en la salud. Resultados del estudio ISAVIC en el País Vasco. *Gaceta Sanitaria*, 25(2), 108-114.
- ❖ Larraza Arnanz, Saioa (2019). *Hizkuntzen irakaskuntza. Nola lagundu hurrei hizkuntzak ikasten?* Argitaratu gabeko materiala.
- ❖ Martín, F. M. (2009). Violencia colectiva, violencia política, violencia social. Aproximaciones conceptuales. *Violencia y salud mental*, 19.
- ❖ Marzouka, N. (2004). Niños expuestos a la violencia en Palestina: programa de salud mental de la comunidad de Gaza. Gaza y ribera occidental del Jordán. Palestina. *Psicología para América Latina*, (2), 0-0.
- ❖ McEvoy, B. (2019). Feeling safe enough to learn in a conflict zone. *Forced Migration Review*, 60.
- ❖ Menéndez, V. R. (2017). Los niños y las niñas en la guerra: Respuestas desde el Derecho Internacional frente a los crímenes de reclutamiento de niñas y niños soldados y violencia sexual. *IUS ET VERITAS*, (55), 42-62.
- ❖ O'Connor, K. J., Schaefer, C. E., eta Braverman, L. D. (2017). *Manual de terapia de juego*. Editorial El Manual Moderno.
- ❖ Ortega, I., Ruiz de Garibay, M., & Eguzkiza, M. J. (2004). Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak.
- ❖ Palestinalibre. (2014). *Delicias culinarias de Palestina y la apropiación cultural israelí* [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: <https://palestinalibre.org/articulo.php?a=50550>
- ❖ Palestinalibre. (2017). *Popular juego de mesa palestino se moderniza a los tiempos de hoy para no desaparecer* [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: <https://www.palestinalibre.org/articulo.php?a=65927>
- ❖ Pappe, I. (2007). *Historia de la Palestina moderna*. Ediciones AKAL.
- ❖ Quiroga, A., Willis, G. B., Rodríguez, L. L., & Moreno, A. (2015). Consecuencias psicológicas de la violencia colectiva en la niñez: El caso de

- Monterrey, México. *Estudios de Psicología: Studies in Psychology*, 36(2), 294-315.
- ❖ Rovira, D. P., & Landa, S. U. (2004). Sobre la Violencia Colectiva: Procesos y Efectos Psicosociales. *Norte de salud mental*, 5(20), 37-44.
  - ❖ Ruiz, S. (2002). Impactos psicosociales de la participación de niñ@ sy jóvenes en el conflicto armado. *Conflicto armado, niñez y juventud: Una perspectiva psicosocial*, 17-46.
  - ❖ Samy, M. (1995). Los niños y la guerra: La Experiencia Palestina. *Fundación Cultural y*.
  - ❖ Schultz, J. H., Marshall, L., Norheim, H., & Al-Shanti, K. (2016). School-based intervention in ongoing crisis: Lessons from a psychosocial and trauma-focused approach in Gaza schools.
  - ❖ Shah, R. (2015). Protecting children in a situation of ongoing conflict: Is resilience sufficient as the end product?. *International Journal of Disaster Risk Reduction*, 14, 179-185.
  - ❖ The Borgen Project. (2020). *7 Facts about Palestinian Children*. [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: <https://borgenproject.org/7-facts-about-palestinian-children/>
  - ❖ Toro Jiménez, D. M. (2011). *Acompañamiento psicosocial a niños y niñas víctimas del conflicto armado en Colombia: un escenario para la acción sin daño* (Doctoral dissertation, Universidad Nacional de Colombia. PIUPC).
  - ❖ UNICEF. *Gaza e Israel: el sufrimiento de los niños debe detenerse*. [Blogeko mezua]. Hona webgune honetatik berreskuratua: <https://www.unicef.es/noticia/gaza-e-israel-el-sufrimiento-de-los-ninos-debe-detenerse>
  - ❖ Villanueva, P. (2015). Saca a los niños de los traumas. *Reforma*, 32, 32–32.
  - ❖ Wells, G. (1988). Aprender a hablar: la construcción del lenguaje (3.kap). *Aprender a leer y escribir*. Barcelona: Laia

- ❖ Zin, H. (Produktorea). (2014). *Nacido en Gaza* [Dokumentala]. Honako webgune honetatik berreskuratua: <https://www.netflix.com/es/>

## 9. ERANSKINAK

### 1. ERANSKINA – Traumak utzitako ondorioak zehazteko kontrol-zerrenda

	BAI	EZ
1. Amesgaiztoak ditu		
1.1. Hil egingo dela pentsatzen du		
1.2. Guraso edo lagunaren heriotza berpizten du		
1.3. Etxea suntsituko diotela pentsatzen du		
2. Lo egiteko zailtasunak ditu		
3. Edozein zaratagatik izutzen da		
3.1. Zarata bortitzak		
4. Negar egiteko joera du		
5. Komunikatzeko arazoak ditu		
5.1. Oinarrizko gauzetarako bakarrik hitz egiten du		
5.2. Ez du hitzik esaten		
6. Jokaera beldurtiak ditu		
7. Larridura handiko erreakzioak ditu gertaera traumatikoa gogoratzekoan		
8. Antsietate handia erakusten du		
9. Oldarkortasuna kontrolatzeko zailtasunak ditu		
10. Jarrera desafiatzaileak ditu		
11. Ez du konfiantzarik bere buruarengan		
12. Ez du konfiantzarik gainerakoengan		
13. Erlazionatzeko zailtasunak ditu		

14. Arreta jartzeko arazoak ditu		
15. Desoreka emozional handiak erakusten ditu		
16. Mugimendu bortitzak ez egiten saiatzen da		
17. Etorkizuneko proiektio negatiboa erakusten du		
18. Hizkuntza eta jolasa bezalakoak gerra sinboloekin lotzen ditu		
19. Haur depresioaren zenbait sintoma erakusten ditu		
19.1. Tristura		
19.2. Apatia		
19.3. Mintzamenaren gutxitzea		
19.4. Jarduera fisikoaren murrizketa		
19.5. Uzkuertzea		
19.6. Larritasuna		
19.7. Motibazioaren murrizketa		
19.8. Jokabide-inhibizioa		
19.9. Suminkortasuna		
19.10. Lotsa-sentimenduak		
19.11. Alferkeria		
19.12. Errua		
20. Ez du bizitzeko gogorik		
21. Buruko mina izateko joera du		
22. Ahalik eta gutxien jaten du		

2. ERANSKINA – Haurren inguruko informazioa biltzeko galdetegia, *eskola kulturaztunetan irakastea eta ikastea* liburuan oinarrituta:

A. Nola ahoskatzen da haren izena?
B. Zeintzuk dira haurren alderdi positiboak?
C. Zein gaitasun edo interes berezi ditu?
D. Zeintzuk dira haren izaeraren ezaugarri nagusiak?
E. Behar bereziren bat du?
F. Ondo egiten du lo? Amesgaiztoak izateko joera du?
G. Zein da haurrak etxean ikasi duen lehenengo hizkuntza edo hizkuntzak?
H. Zein hizkuntza erabiltzen du orain etxean haurrak?
I. Zenbat hizkuntzatan moldatu daiteke? Zeintzuk?
J. Zein hizkuntzatan gauzatu ditu orain arteko ikasketak?
K. Etenik egon al da haren hezkuntza prozesuan?
L. Ba al du txosten akademikorik?

3. ERANSKINA – Haurra gelan behatzeko kontrol-zerrenda, *Eskola kulturantzunetan irakastea eta ikastea* liburuan oinarrituta: 65

	BAI	EZ
1. Ba al du gainerako ikaskideekin harremanik?		
2. Berak bilatzen ditu gainerako ikasleak?		
3. Modu indibidualean jolasten da?		
4. Haren lehenengo hizkuntza erabiltzen du lagunekin komunikatzen saiatzeko?		
5. Haren lehenengo hizkuntza erabiltzen du irakaslearekin komunikatzen saiatzeko?		
6. Egunerokotasuneko zereginak modu autonomoan egiten ditu?		
7. Gai da, ahal den neurrian, emandako jarraibideak ulertzeko?		
8. Estrategiaren bat erabiltzen du euskara ulertzeko?		
9. Gelan erosotasunez mugitzen da?		
10. Azkar beldurtzeko joera du?		

11. Negar egiteko joera du?		
12. Hizkuntza alde batera utzita, komunikatzeko zailtasunak ditu?		
13. Zaraten aurrean larritasuna erakusten du?		
14. Larridura handiko erreakzioak ditu gertaera traumatikoa gogoratzean?		
15. Oldarkortasuna kontrolatzeko zailtasuna du?		
16. Jarrera desafiatzaileak ditu?		
17. Edozein arazoren aurrean indarkeriazko erantzunak izaten ditu?		
18. Euren buruarengan konfiantza erakusten du?		
19. Gorrotoa eta mendekua bezalako sentimenduak adierazten ditu?		

#### 4. ERANSKINA – Amarauna jolasa

Ikasleei zirkulu bat osatzeko eskatu. Ondoren, aukeratu haurretako bat, armiarma-sarearen hasiera izan dadin (irakaslea bera ere izan daiteke). Pertsona hori gainerako kideei haren izena esango dio, eta beste pertsona bati botako dio haria (haren hasieratik hartuta). Gainerakoek gauza bera egingo dute, hari zati bat heldu eta beste lagunei pasa.



Geroago, ondorengo aldaera egin daiteke: haria jasotzen duen pertsonak bere izena esateaz gain, aurreko ikaslearen izena ere esan beharko du. Jarduera zailtzeko asmotan izenaz aparte, ikasleen beste datu batzuk ere errepika daitezke. Armiarma-sarea desegiteko prozesu bera egin daiteke; baina, oraingo honetan haria jaso eta izenak alderantziz esango dira. Azkenik, zailtasun puntu bat gehitzeko asmotan, ikasleak borobilean jarri beharrean behar besteko distantziara jarriko dira, eta batetik bestera haria jaurtiko da.

## 5. ERANSKINA – Errezeta: Hummus

### **Osagaiak:**

- ❖ 400 g garbantzuz egosi
- ❖ 2 koilarakada tahini (sesamo-pasta)
- ❖ Baratxuri handi hortz 1
- ❖ Kino-hauts koilarakada 1  
1/3 gatz koilarakada
- ❖ 1/3 piperrauts gozo koilarakada
- ❖ Koilarakada 1 oliba-olio
- ❖ 50 g ur
- ❖ Tipulina eta apaintzeko haziak

### **Prestakuntza:**

- ❖ Jarri baratxuria eta moztu xaflatan.
- ❖ Ondo xukatu garbantzuzak eta jarri irabiagailu edalontzi batean.
- ❖ Gaineratu baratxuria edalontziari, baita tahinia, kuminoa, gatz, piperrautsa, oliba olio eta ura ere.
- ❖ Irabiagailu batekin ondo ibili, puskak geratu eta pasta bat lortu arte.
- ❖ Hummusa ontzi batean zerbitzatzen du eta haziak eta tipulin xehatu pixka bat ditu apaingarri.

## 6. ERANSKINA – Brwanjeya

